

**Mariñelarena**  
Italian lehiatuko  
da, mundialean



Kirola >> 19

Gaur hasiko dira **Altsasuko festak**. Herriak bere **txistulariak omenduko** ditu. Pilota eta txirrindula probak eta gehiago



Sakanerria >> 16/22



Eduardo Brun, Ruben Goñi, Aritz Ganboa, Iker Manterola eta Patxi Goikoetxea aurkezpenean.

**Ekaiko Kontzejua**  
bi lan egiten ari da

Hilerria handitzeko eta txukuntzeko lanekin batera, aldamenean dagoen San Lorenzo ermitako teilatua konpontzen ari da

>> 6

**Lakuntzako Udala**  
boluntarioekin oso eskertuta

Eskolen itxitura eta parkeko lanak boluntarioei eta auzolanei esker egiten ari dira

>> 7

# Ganadu azoka Irurtzunen bueltan

>> 12

**Langabeak gehiago aktibatze**ko saioa egingen da 20an

>> 5

**Heldutan euskara ikastea posible da;** proba euskaltegian

>> 3

**Altsasuko Udalak Ospa Egune**ko salbuespen egoera salatu du

Ospak lanean jarraituko du >> 9-10



**Lazaro Echeverria,** aldeen arteko akordioa >> 11



**Halakorik ez errepikatzeko eskatu dute Inasakoek** >> 15



**Berastegiren haur antzerki testua Iruñean saritua** >> 23

**Sakana optika**

*Ongi pasa festetan!*

optikasakana@gmail.com • 948 563 124 • Iortia Plaza 11 • ALTSASU

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Iraia Otsoa Perez**  
ZORIONAK pottoka!!!! Zure lehendabiziko urtea!! Jarraitu beti bezain alai eta txintxo. Muxu potolo bat amato eta aitaxoren partez.



**PARISINAK ZORIONAK!**  
Baina ze Gustora, e? Muxus!!



**Puttobeoki**  
Gora Puttobeokiko festak!!!



**Pln**  
Aurten ere AEKn euskara ikasten jarraituko duzu!!!! Eskerrik asko, kanpotarra izanda, gure hizkuntza ezagutu nahi izateagatik!!!



**July**  
Eskerrik asko July!!!! Aek-n matrikulatzeagatik eta zure alaitasunarengatik!!! Zurekin, euskarak... aurrera!!



**Luzia Navarro**  
ZORIONAK etxeko sorginai!! Ostiralien ospatuko dugu soziedadien. Fameliyan partez. Muxu asko.



**Miguel**  
ZORIONAK Miguel euskara ikasten ari zarela!! Sakanako AEK-ko guztion partez mila esker!!



**Mertxe**  
Eskerrik asko Mertxe!!! laz tinko aritu zinen Euskaltegian!!! Euskaldun bat gehiago Sakanan!!! ZORIONAK!



**Elorri**  
Bat, bi, hiru ta lau... Lau urte dauzka gure etxeko txikiak. Segi beti bezain humoretsu eta alai. Muxu potoloak etxekoen partez.

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

## irailak

# 13-19

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net



KOP talde kataluniarra.

## Musika

**KOP+Bad Sound Sistem.**  
Irailaren 13an, ostiralean, 24:00etan Altsasuko plazan.

Etxarri Aranazko abesbatza.  
Irailaren 15ean, domekan, 13:00etan, Altsasuko plazan.

**Berri Txarrak.**  
Irailaren 15ean, igandean, 20:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

**Gozategi.** Irailaren 15ean, domekan, 22:00etan Altsasuko plazan.

## Irteerak

**Ubaba.** Irailaren 16an, astelehenean, 16:30ean, natur parkeko informazio gunetik. 3 km. 16 pertsona gehienez. Mirua: 608 560 369.

## Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**  
Irailaren 13an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbuzuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

## Euskal Presoak Euskal Herrira!

Irailaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

## Sakanako Langabetuen Asanblada.

Irailaren 16an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.



Berri Txarrak taldea ikusteko sarrera guztiak saldu dira.

107.3 FM  
**beleixe** online  
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: Irurtzongo azoka,  
Lazaro Echeverriako langileak, Ospa Egunaz...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

*Piztu irratia!*

## SAKANA

## Kexua gobernuak liburuzain euskaldunik bermatzen ez duelako



Lanpostu horietan ez dago hizkuntza eskakizunik, euskara ezagutzea meritua besterik ez da

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta hainbat udalek Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritzari eta Nafarroako Administrazio Funtzio Publikoko Sailari bilera bana eskatu die egoera zuzendu ahal izateko. Izan ere, eremu euskalduneko liburutegietan Nafarroako Gobernuarentzat euskararen ezagutza meritua besterik ez da. "Horrek euskaraz ez dakiten langileak ipintzeko aukera zabalitzen du", diote UEMATik.

Bi eskaera egin dizkiote UEMak eta udalek Nafarroako Gobernuari. Batetik, plantila organikoan herri horietako libu-

rutegiko arduradunaren lanpostuari hizkuntza eskakizuna jartzea, euskaraz jakitea nahitaezkoa izan dadin. Eta, bestetik, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Liburutegien Sarean dauden udalerrien arteko hitzarmenean hizkuntza irizpideak sartzea eta liburuzainen hizkuntza eskakizunak gehitzea.

Sakanan liburutegi publikoaren sarekoak dira Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutia. Udalek lokal jarri eta haren mantenuaren ardura dute, gobernuak langileena. Azkeneko lekualdatze lehiaketan Etxarri Aranatzko eta Olatzagutiko plazak hutsik gelditu direla azaldu digute, hau da, orain dauden langileak behin-behinekoak direla.

### Argudioak

UEMAko ordezkariak gogorarazi dutenez, "mankomunitateko uda-

## 2 eskaerak

Plantila organikoan herri horietako liburutegiko arduradunaren lanpostuari hizkuntza eskakizuna jartzea, euskaraz jakitea nahitaezkoa izan dadin.

Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Liburutegien Sarean dauden udalerrien arteko hitzarmenean hizkuntza irizpideak sartzea eta liburuzainen hizkuntza eskakizunak gehitzea.

Ierrietan herritarren %70etik gora euskalduna da. Euskaldunen tasa are handiagoa daliburutegiaren erabiltzaile nagusi diren 25 urtez azpiko artean, zehazki %90etik gorakoa da". Euskararen Legea ere gogoratu dute, UEMAko udalerriak eremu euskaldunean gonda "herri-targuztiak, Administrazio Publiko-ekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea" dutela gogoraraziz.

Mankomunitateko ordezkariak iritziz, "liburutegiko langileen hizkuntza gaitasunak udalerrietako egoera soziolinguistikoan duen eraginaz jabetuta, aipatu langileen hizkuntza eskakizuna ezartzea beharrezkoa" dela uste dute.



Edozein adin da euskara ikasteko ona, baita heldutan ere. UTZITAKOIA

## Heldutan euskara ikastea posible da; euskaltegiak hori errealitate bihurtzeko irrikitan daude

Mezu horixe zabaldu zuen aurreko ostiralean Iruñean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Idazkari nagusi Paul Bilbaok. Heldutan euskara ikasteko urratsa ematen duten herritarren konbentzimendua txalotu zuen Bilbaok eta egiteko horretan IKAko eta AEKko euskaltegiak Nafarroan egiten duten lana aitortu eta zoriondu zuen: "Oztopoen gainetik gure herria herritar euskaldunetzeko ekarpenari erantzukizunez erantzun izan diote eta erantzuten diote gaur egun ere".

Norabide horretan Nafarroako Gobernuak eta bere hizkuntza-politikak ez dutela laguntzen azpimarratu zuen: "are gehiago, gehienetan gure kontratadoz. Nafarroako Gobernuak ez baitu helduak euskaldun-

tzerik nahi, eta horretarako bere esku dagoen guztia baliatzen du helduak euskaldunetzeko prozesuetatik aldentzeko: dirulaguntzak kendu, oztopoak jarri..."

### Euskaltegiak betetzera

Dei hori egin zuen Bilbaok. "Zalantzarik ez dugu euskaraz bizi nahi dugun herritarrek gero eta gehiago garela, baina euskaraz biziko bagara euskaldun gehiago izan behar dugu". Horregatik, euskaltegiak izena emateko deia luzatu zien herritarrei. Interesa duten herritarrek AEKren (948 220 213 edo www.aek.org) eta IKAren (948 222 246 edo campion@ikanet.net) euskaltegiak besoak zabalik topatuko dituzte.

tu tienda especial  
ALTSASU  
948 467 215 www.tutiendaespecial.com

Ongi pasa festetan!!!



Raf Atxuri

## Uda atzen, hostozko tunel bat aurrean

**astekoa**
**barrutik kanpora**
**Aurkezpena**

Udarako azken hondarrak ditugula egunok, gogo-gorputzek nagiak astintzen dituzte haize heze eta zakarren espero epelan. Jaundone Mikel in excelsis sarri, baina udako azken asteetako eta larrazkeneko lehen egunetako ibili goxoarekin batera eguzkiaren beheratze geldi bezain beharrezkoa eta etxe sutondorako deia somatzen dugu. Epaitza eta egurlanakeginek, txondarrak egosirik eta ardiak beheko larreetan harra-

pa gintzake negu luzeak (urritik apirilera artekoak), aitzitik Sakanako hainbat etxetan, gero eta gehiagotan apika, ez dute arrazoi franko bost ipuin eder kontatzeko arrats luzeetan. Izan ere, gurean krisia laketu da luze-eroko asmoz.

Ustelkeriaren koplak amaigabeak sorta berriak ekarriko dizkigu menturaz.

Politikari eta kazetari ugari jardungo dira grinatsu besteen libratu gabeko heste zornatsuak

seinatzen eta mota guztietako aitzakia ponpoxoak asmatzen, ustelkeria hain baita sistemiko, sistematiko eta ohiturazko non ardurak, erruak eta delituak arintzen eta apaltzen diren neurrigabeki. Barcina andreak lotsarik nimoena baleuka etxerako eta unibertsitaterako bidea hartu beharko luke, baina D.N, UGT / CEIN / CCOO / UAGN eta Madrilgo botere handiaren babesaz lotsaren monumetu kirastua osatzen jarraiki-

tzea hobetsi du.

Bestalde, Fukushima taiga-be ur irakin pozoitsua dario, Sirian sionismoaren eta petrolio interesen xake partida amaizinean auzia gori-gori, Katalunian castellet-eko gailurra osatzen ezinbestean eta Bilbon monarkikoak eta espainiar konstituzionalistak Azkunaren egarri biziz.

Hostozko eta bizipenezko tunel bat daukagu aurrean. Haizea aldeko gerta bekigu!!

Sakana bailara ederra da eta bere biztanleek etorkizun itxaropentsua merezi dute. Baina etorkizuna guztion artean erabaki beharreko zerbait da. Erreformak, murrizketak, desindustrializazio basatiak, gure bizimoduan eta gure harremanetan aldaketak eragin dituela argi dago. Elkartasuna indartu egin da gizartearen esparru zabaletan baina jarrera berekoak ere areagotu egin dira egoera okerraren babespean.

Nolabaiteko inboluzio ideologiko bat ematen ari dela uste dugu. Elkartasuna eta klase borroka alde batera utziz, gizartearen sektore batek bere etorkizun pertsonala beste edozein ideia edo baloreen gainetik jarri ditu. Askok egoeraren biktimak direla uste dute eta guk ere argi daukagu bizi izan ditugun gertaerek etsipena hedatzeko aukera eman dutela. Baina tira, lehen zentzua zuten baloreek ez dute gaurkotatzen. Gure borroka gaur egun balore hauen defentsa izango da, ez dugu onartuko langileak esklabo bihurtzea. Hori baita, azken finean, boteredunen helburua.

Ez dugu gutun hau bukatu nahi Inasako langile ohiak agurtu gabe eta egun borrokan jarraitzen duten Lazaro Echeverriako langileei gure elkartasuna adierazi gabe. Beti dago borrokatzeko aukera. Animo zuek.

**Abian plataforma**

## hara zer dien

### Nerabezaroa

Droga-menpekotasun Prebentzio Programatik gure seme-alabengandian familiak betetzen duen paper garrantzitsua azpimarratzen saiatu gara. Gure seme-alaben heziketa jaitza aurretik hasten da eta bizi guztian zehar presente dago, uneoro baikaude gartzen. Gaurkoan nerabezaroaren etapaz hitz egingo dugu, orokorrean etapa korapilatsua bezala bizitzen diren urteez, hain zuzen.

Seme-alabendako familia, babes faktore izatetik, arrisku faktore izatera pasa daiteke, eta alderantziz ere. Hori dela eta ezinbestekoa da kontuan izatea familiaren funtzionamenduak gure seme-alabetan izan dezakeen eragina bai onera eta bai okerrera ere.

Gure seme-alabei hauen heziketan geroz eta baliabide gehiago eskaintzen badizkiegu (errefortzu positiboa, beren adinera egokitutako ardurak eman, motibazioa landu, beren izateko eraren onarpena...) etorkizun batean egoera desberdinetatik (drogen lehen kontsumoak, erabakiak hartzea...) erraztasun handiagorekin aterako dira.

Nerabezaroan gai desberdinak has daitezke loratzen: lehen droga kontsumoak, aldaketa fisikoak, lagunen garrantzia beren bizitzan, lehen ateraldiak, identitatea jorratzeko autoritatea zalantzan jartzea... eta hauek guztiak ak pairatzeko ezinbestekoa da etxean komunikazio ona egotea gure

seme-alaba eta gure artean. Komunikazio hau ez da egun bateko gauza, bizitza guztian zehar landu behar den gaia baizik.

Jakinda nerabezaroa aldaketa etapa bat dela, guraso bezala, kontuan izan ditzakegun irizpide batzuk luzatzen dizkizuegu:

- Beren aldaketak ulertzen saiatu behar gara, fisikoak nahiz psikologikoak, dauden etapen ulertu eta diren bezala onartu (beren potentzial eta ahuleziekin).
- Beren erreakzioak errespetatu behar ditugu, beti ere beste pertsonen kontra ez doazenean, adin hauetan umore aldaketak gehiagotan ematen baitira.
- Beraiekin "hor gaudela" transmititzea, egoera atseginetan eta

zailtan ere bai.

- Beren motibazioa sustatzeagarrantzitsua da beren inguruarekiko interesa eta ardura izateko.
- Beren intimitatea errespetatzea beharrezkoa da. Egiten dituzten gauzez interesa azaltzea oso gomendagarria da, beti ere bakoitzaren intimitatea kontuan hartuz, era honetan ez baitira urrundu.

Gizartean, orokorrean, nerabezaroa etapa zail eta nahasia bezala bizitzen da eta etapa honek ekartzen dituen hainbat onura ezin ditugu ahaztu: sormena dute, kritikoak dira, autonomoak, laguntasuna baloratzen dute... eta bide bat dute egiteko. Hauek oso presente izatea ezinbestekoa da gure artean harreman osasungarriagoak garatzeko.

**Prebentzio Programa**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

### Guardia Zibila? Ez, eskerrik asko!

Borja Imaz eta Maitane Intxaurreaga, Sakanako Sortu

Abuztuak 14. Irurtzun. INASAREN desegitea eragotzi eta lanpostuak mantentzeko borrokan ari direnak jarrira daude lurtean, makinaria daramaten kamioei bidea ixteko asmoz. Kolpeak, irainak, mehatxuak, identifikazioak, atxiloketak... Guardia Zibila.

Abuztuak 31. Altsasu. Ospa

Eguna. Aldarrikapen sentitua eta konpartitua gurean. Guardia Zibila herria okupatzen, parean, herritarrek, duintasuna borroka.

Zibilak kontrolatu eta indarrez, inposatutako arauak bete-arazteko gorputz militarra da Guardia Zibila. Estatu kapitalista, zapaltzaile, patriarkal baten ideologiaren erakusle gardena. Zigorgabetasunaren harrokeriaz blai. Gutxi dira, guardia zibila inguruan ibili eta ziur sentitzen

direnak, ziurtasunerako gorputza izanda ere, ofizialki behintzat.

Ez ditugu nahi, ez ditugu behar. Kalte egiten dute, elkarbizitzan, herritarren oinarriko askatasunen gauzapenean, giza eskubi-deen garapenean. Euskal Herriak desmilitarizazioa behar du, nahi du. Jendartearen botere hartze prozesu bat zabaltzeko harriak jartzea da asmoa, zimendu sendoetan eraikitako herri askea eraikitzeko. Errepresiorako aparatuak ez ditu gogoz desegingo

Estatuak, beste eremuetan bezala, herri erantzun eta presioak behartuta emanen ditu pausoak.

Antolaketaz, ekimen irudimentsuak praktikan jarri (Altsasun kasu), herritarren nahiekin bat eginez, arrazoiaren indarrez, lortuko dugu behar adina atxikimendu aldaketak eragiteko. Ez dugu zalantzarik ospa egin, egingen dutela, atzerako kontaketa hasita dago.

Osorik [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)-en

## gora/behera


**Herri musikariak**

Festa eta ospakizunetarako ezinbestekoak. Txistulariak omendu dituzte Etxarrin eta Altsasun.


**Nafarroako Gobernu**

Liburutegietarako hizkuntza irizpideak ez onartzeagatik.

## Guaixe

**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**GUAIXE:** Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**PUBLIZITATEA:** Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net) • Maria Saez de Albeniz Bregaña • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net) • 948 564 275

**Erredakzio burua:** Alfredo Alvaro Igoa  
**Erredakzioa:** Maider Betelu Ganboa  
**Maketazioa:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**Laguntzaileak:** Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso  
**Zuzentzailea:** Garazi Gartzia Mauleon

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200 ale

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
 s a k a n a



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAIALA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## SAKANA

## Langabeak gehiago aktibatzeke prest

Hirusaiotan, (garilaren 17an bieta aurreko astean bata) 29 langabe sakandarrek esperientzia pilotu batean parte hartu zuten. SNEINN programari buruzko azalpenak jaso zituzten guztiak. Saiok despeditu ondoren hautagaiek "dituzten ikasketak eta mentalitate pasibotik-aktibora pasatzeko nahia eta gogoia" aztertuko dituzte.

Horrela, 15-20 arteko talde bat aukeratu dute, 4 hilabeteko programa batean parte hartu ahal izateko. "Eginez ikasi metodologiaren bitartez eta talde lana indartuz, langabetuen artean mentalitate

aldaketa bat sortzea da, jarrera pasibotatik, jarrera proaktibo eta ekintzaile batera aldatzeko".

## Hiru saioez

Mondragon Team Academy, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateko Ekintzailetasun Unitatea eta MIK Ikerkuntza eta Kudeaketa zentroa, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatzen dute programa hori. Orain arteko hiru saioetara joandako pertsona kopuruarekin antolatzaileak pozik daude "Sakanan kalitate asko dagoela argi geratu

delako". Azken saiora joandakoen "jarrera eredugarriarekin oso pozik" daudela nabarmendu dute antolatzaileek.

## Langabetuei deia

SNEINN programaren inguruko informazio saio berria hilaren 20an izanen da, 9:00etatik 12:00etara, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasun duen bulegoan. Jardunaldi horretan programan erabiliko diren metodologiak eta ekintza praktikoak ezagutzeko aukera izanen da. Langabetu sakandarrak programari buruzko informazioa



Saiotako batean parte hartu zuten sakandarretako batzuk. ARTXIBOA

eskatu eta parte hartzerantz animatu dituzte. Informazio gehiagorako [sneinnsakana@gmail.com](mailto:sneinnsakana@gmail.com) e-postara idatzi daiteke.

## Irañeta



Parte-hartzaileek esperientzia errepikatzeko irrikatan despeditu ziren. UTZITAKOIA

## Elkar-ezagutzaren hazia

Horixe landatzen ari da Sakanan, han-hemenka, Immigrazio Zerbitzua. Horretarako igandean jatorri ezberdinetako sakandarrak biltzeko deia egin zuen. Goizeko euriak batzuk atzera bota bazituen ere, Marokon, Aljerian, Ekuadorren eta ibarrean sortutako 22 sakandar bildu ziren.

Irañetan Pedro Beraza alkateak egin zien harrera, herriaren berriematearekin batera udaletxe ondoan abereak ferratzeko tokia

erakutsi zien. Bisitatzen hurrengo tokia Urruntzura iturburua izan zen. Han gosaldia ondoren, haritzen ibilbidea osatu zuten, Andia magalean. Ondoko bordan bazkaldu ondoren, jolasen garaia iritsi zen. Txangoak elkartutakoak "aniztasunak blaitu" zituen, "ezberdintasunak hurbildu eta berdinduz egin gintuen, umore onez beteriko egun alai batean". Artekotasunaren domina bana jaso zuten parte-hartzaileek.

## Etxarri Aranatz

## Saharako errefuxiatu kanpamenturako jaki bilketa

Hilaren 20ra arte Etxarri Aranatzko hainbat dendetan jakiak bilduko dira. Argeliako desertuan dagoen Tinduf-eko errefuxiatu eremura bidaliko dira Etxarri eta Nafarroako beste herrietan bildutako jakiak, ANAS elkartearen bidez. Makina bat familia nafar dira Oporrak Bakean proiektuaren barruan, garila eta agorrilean euren etxeetan haur sahararrak hartzen dituztenak. Azken bost urteetan

halako haur bat ekarri duen familia etxarriar baten ekimenez egingen ari da jaki bilketa hori.



Bilketa saskia denda batean.

## SAKANA

Hilaren 28an izanen da, Sorluzen. Euskal Herriko euskaltzale guztiak parte hartzerantz gonbidatu dituzte

TopaEguna euskaltzaleen festa da, Deba bailarako euskara elkarteek Euskaltzaleen Topagunearekin batera antolatu dutena. Euskaltzaleen jaieguna izatea nahi duen TopaEgunak "euskaltzaleen ekarpenaren eskertze eta aldarrikapena izan nahi du, baina baita ospakuntza ere, Euskal Herri osoan zehar, elkarrekin antolatuta dauden euskaltzaleen festa eguna, elkar ezagutza eta trukeerako eguna". Egitarauak adin guztientza-

## Euskaltzaleak TopaEgunean parte hartzerantz gonbidatu dituzte



TopaEguneko antolatzaileak deialdia egiten. TOPAGUNEA

ko eskaintza izango du. Sakanan euskaltzaleen topagune dira Aizpea eta Kima euskara taldeak eta Bierrik fundazioa.

## Pablo Lopez Galarza, S.L. — Eraikuntzak

JAI ZORIONTSUAK!!

- Eraikuntzak orokorrean
- Berritzeak
- Fatxaden eraberritzea
- Mortairuaren imitazioak

Isasia ind. 9 nabea ALTSASU 948 468 236 • 630 894 169  
e-posta: [CONS-PABLOLOPEZ@terra.es](mailto:CONS-PABLOLOPEZ@terra.es)

**aek**  
Euskara praktikoa  
SAKANAKO AEK  
ITSASI EUSKALTEGIA

Gartzia Ximenez 46, 1.  
ALTSASU  
948 468 258  
[sakana@aek.org](mailto:sakana@aek.org)



- Maila eta ordutegi guztiak  
Todos los niveles y horarios
- Guraso taldeak ikastetxeetan  
Grupos de padres y madres en los colegios
- Matrikula irailaren 20a arte  
Matrícula hasta el 20 de septiembre
- Zure herrian bertan ikasteko aukera  
Oportunidad de aprender en tu pueblo
- Autoikaskuntza / Autoaprendizaje

&gt;&gt; Ekai

# Hilerria handitzeko lanak

Kisusgileak Ekaiko hilerria berri-  
tu eta handitzeko lanetan ari dira  
egun hauetan. Ekaiko Kontzejuak  
Toki Administrazioako Departa-  
mentuaren lau urteko planeko diru-  
laguntzen deialdia aurkeztu zuen  
lana eta joan zen urtean egitekoak  
ziren. Baina atzeratu egin da.

Hilerria konpontzeko premia  
zuen. Hala azaldu digu Ekaiko  
kontzeju-buru Jesus Angel Ongai  
Sanzek: "lurrak beheara egin zuen  
eta gainean zeuden horma-hobiak  
zartatu egin ziren". Horren ondorioz,  
hilkutxaren bat hilerrian utzi ondoren  
ez zegoen bueltatzetik. Gainera,  
hilerria sasiak janda zegoela eta txukuntzeko  
premia larria zuela gehitu du Ongaik.

Kontzejuak 60.040 euroko inbertsioa  
eginen du (14.747 euroko diru-laguntza)  
hilerriko lanetan. Aipatutako horma-  
hobietako matxurak konpontzeaz gain,  
hilerriko atea zabalduko dute eta  
horrela hilkutxak erosoago sartzeko  
aukera izanen dute. Gainera,  
hilerria iparralderantz handitu  
eginen dute, 7 metro zabal eta 12  
bat metro luzeko azalera gehituko  
zaio eta horma-hobi ilara bat  
gehiago jasoko dute. "lan horiekin  
hilerria ongi utzi nahi dugu" azpimarratu  
du Ongaik.

Martxan diren lanak bukatu  
ondoren "30 urterako lanak des-  
peditu ditugu" azaldu du Ongaik.  
Ekain premiak badituzte ere, kon-



Aldamenean dagoen San Lorenzo ermitako teilatua ere berritzen ari da Ekaiko Kontzejuak. ARTXIBOA

tzejuak dirurik ez duela azaldu  
du. Egitekoen artean zerrendatu  
ditu herri-lurretako itxiturak

berritzea, kaleetan jasota dago-  
en porlan zatiak konpontzea edo  
ta telefono kableak lurperatzea

(duela 3 urte argiteria publikoko  
eta argindarrekoak lurperatu  
zizuten).

&gt;&gt;



Ekaiko San Lorenzo ermita Bi Aizpe atzean duela. ARTXIBOA

## Ermitan ere

Hilerriko lanekin batera, hari  
itsasia dagoen San Lorenzo ermita-  
tako teilatua ere berritzen ari da  
Ekaiko kontzejuak. Eraikina ia  
aurri egoeran zegoela eta denei  
botatzea pena ematen ziela azaldu  
digu kontzeju-buruak. Arakilgo  
Udalak ibarreko tokiko eko-

nomia aktibatzeke planeko diru-  
laguntzarik gabe ermitako teila-  
tuko lanak ez zirela eginen aitortu  
digu Ongaik.

San Lorenzo ermitak balio  
artistikorik ez badu ere, histori-  
koa du. Han Arakilgo batzarra  
bildu izan da. Esaterako, 1.734ko

garilaren 22an Arakilgo agintariak  
ermitan bildu ziren, Irañetaren  
sezesioaz hitzegitera. Horregatik  
Kultura Departamentuak ez du  
eraikina botatzen utzi. Eguraldiak  
eta lapurrek egin diote kalte,  
egoera penagarri horretan gelditu  
arte. Aspaldi ez da prozesiorik  
egiten. Artzapezpikutzak bere  
izenean jarritako ondasunen artean  
ez dago Ekaiko ermita.

&gt;&gt; Altsasu

Udalak aurten egin nahi lituzke  
lanak

Interesatutako enpresek hilaren  
20ra arteko epea dute haien eskaintza  
egiteko. Lanak hartzen dituen  
enpresak aterpeko zutabeak eta  
terrazen forjatua indartu behar-  
ko ditu. Horrekin batera, terrazak  
ere iragargaiztu behariko ditu.  
Lanak hartzen dituen enpresak  
hiru hilabete izanen ditu haiek des-  
peditzeko eta trukean 93.015,73  
euro jasoko ditu (BEZ barne).

Zumalakarregi plazako aterpean  
2009ko maiatza hasieran jarri zituen  
metalezko zutoinak Altsasuko Udalak,  
egituraren egoera eskasa denez porlan  
puskak erortzeko arriskua baitago.  
Udalak lanak eman eta kudeatu  
ditu. Baina aterpearen jabetza zazpi  
portaletako bizilagunak dira eta haien  
artein ordainduko dituzte lanak.  
Horretarako 100.000 euro jarri zituzten.  
Udalak lanak egitean, auzokideek  
udal zergak aurreztuko dituzte.  
Lanak despeditu ondoren ater-

## Zumalakarregiko aterpeko lanak emateko deialdia



Jendea Zumalakarregiko aterpean, larunbatean.

pean argiteria publikoa berritu-  
ko du Altsasuko Udalak. Horre-

tarako 20.000 euro bideratuko  
ditu.

&gt;&gt; Olatzagutia

## Ikurren Legea betetzea eskatu du PPK

Alderdi Popularrak Olatzagutian  
duen zinegotziak, Oscar Alvarez-  
zek, alkatetzako taldeari Ikurren  
Legea "behingoagatik bete" deza-  
la eta udaletxean Espainiako,  
Europako eta Olatzagutiko ban-

derak jarri ditzala. Bandera  
horiek maiatzaren 6tik udaletxe-  
an kutxa batean daudela azpimarratu  
du alderdi popularrerko zinegotziak.  
Alvarezek, bestalde, instantzia  
aurkeztuko du uda-

lak beharrean Bilduk ordaindu  
dezan Ikurren Legearen kontra  
auzitegietan jotzeagatik sortu  
den 6.500 euroko gastua. Altsasun  
PPK Ikurren Legea betetzeko  
eskatu du ere.

ARBIZUKO UDAL KIROLDEGIA

2013/14ko jarduerak

	ARTELEHENA	ARTEAREN	ARTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
10:00	Gimnasia 09:30-10:30		Gimnasia 09:30-10:30		Gimnasia 09:30-10:30	
11:00		Yoga 11:00-12:15		Yoga 11:00-12:15		
12:00						Dantza latindarrak 12:00-13:30
13:00						
17:00	Aquagym 15:15-16:15		Aquagym 15:15-16:15			
17:30		Gimnasia erretiroa 17:15-18:15			Gimnasia erretiroa 17:00-18:00	
18:00	Karate haurrak I eta II 17:30-19:00		Karate haurrak I 18:00-19:00		Karate haurrak II 18:30-19:30	
19:00	Yoga Body Tonic 19:00-20:00	Sleep 19:00-20:00	Yoga Body Tonic 19:00-20:00	Sleep 19:00-20:00	Body Tonic 19:30-20:30	
20:00	Pilates 20:00-21:00	Aerobic 20:00-21:00	Pilates 20:00-21:00	Aerobic 20:00-21:00		
21:00						

Katukak emango diren klaseak: Yoga arratsaldean Astelehena eta Asteazkena 19:00-20:15  
Karate II urtekoak aurrera. Zaharrenak astelehena eta ostirala 18:00-19:00. Gaitortzeak astelehena 17:30 eta asteazkena 18:00  
Ez emateko aurrera. Aurrerakoa gimnasia eta aurrerakoa berria.

Igeriketa ikastaroak adin eta maila guztietarako  
Jaio berriendako igeriketa

Informazio gehiago 948 461 002 telefonoan

Zatoz gurea eta ikastaro berrietan apuntatu zaitez.  
ETZARA DAMUTUKO !!!

ARBIZUKO KIROLDEGIA

## » Lakuntza

# Udala boluntarioekin oso eskertuta

ESKOLEN ITXITURA ETA PARKEKO LANAK BOLUNTARIOEI ETA AUZOLANEI ESKER EGITEN ARI DIRA

Lakuntzako zine zaharreko lanek makina bat buruhauste eman dizkio Lakuntzako Udalari. Espainiako Gobernuaren ardura izan da zinema berritzea, NaBaik 2007ko Espainiako aurrekontuan hura berritzeko aurkeztutako emendakin bati onespina eman eta gero. Zinema berritzeko lanak hasi, hasi ziren bertan, besteak beste, San Saastin musika eskola, jubilatuen egoitza, Elai Alai dantza taldearen egoitza, kultur erabilerarendako erabilera anitzeko gelak eta beste egotea aurreikusten da-, baina obrak bukatzeaz zuek, joan den urteko garagarrilean, lanak geldiarazi zituen Espainiako Gobernuak, diru faltagatik. Ondorioz, zinema despeditu gabe, haren eta eskola aurreko urbanizazio guztia egin gabe eta parke-rik gabe geratu zen Lakuntza. Ez aurrera ez atzera. Izan ere, parkea aipatu obren tokian bertan zegoenez, desmuntatu behar izan zen, eta zabuak, txirristak eta beste nahiko hondatuta zeudenez, parke berria egitea erabaki zen, segurtasun aldetik ez zirelako behar bezalako baldintzak bermatu.

## Bide judiziala

Egoera desblokeatzeko Lakuntzako Udalak urbanizazioko lanak egitea erabaki zuen aurrean. Zinemako urbanizazioko lanak (100.850 euro) eta eskolen eta parkearen inguruneke urbanizazio lanak (108.183 euro) egitea erabaki zen. Udan egin ditu Arian enpresak. Baina Udalak ez du kostu hau bere gain hartzeko asmorik. Bere garaian, Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioari errekerimendu bat bidali zion Udalak, zinemako lanak lehenbailehen egiteko eskatuz. Bestela, betearazte subsidiarioa aplikatuko zuela azaldu zion Udalak Gobernuari, hau da, laneko fakturak aipatu ministerioari pasako zizkiola. Eta hala egin dute. "Bide judizialek joango



Argazkiak larunbatekoak dira. Ziur ordutik asko aurreratu dituztela lanak.

gara. Lanak bukatuko ditugu, eta faktura guztiak Madrilen aurkeztuko ditugu. Lehen musika eskola genuen zinema zaharrean, eta

obrak hasi zirenetik gabe geratu ginen. Bide horretatik joango gara" azaldu digu Jose Ramon Garin alkateak.

## Parkea ere martxan



Zinemako lanak gelditu zirenean, Udalak herriko talde, guraso eta interesatu guztiei laguntza eskatu zien guztien artean parke berri bat sustatzeko. Horrela jaio zen Parkea Martxan izeneko ekimena. Taldeak parkeko aisialdi gunea berritzeko proiektu bat egin zuen, lau gune zehaztuz: haurrendako parkea, txikiendako jolas eremua duena; areto futbolera eta saskibaloiarako hormigoizko pista; belarrezko futbol zelaia; -azken bi hauek egun badaude baina txukuntzea eta ongi jartzea da asmoa, urbanizazio lanekin egin dena- eta mahaia eta altzariak izango dituen gunea. Dirua behar zela jakitun, dirua lortzeko makina bat ekitaldi antolatu zituzten: Gabonetako saskien zozketak, San Saastin festetako barra, 2. eskuko azoka, Parkearen eguna eta beste. Aisialdi gune guztiaren aurrekontua 24.000 euro ingurukoa da, eta ekitaldi guztiek 15.000 euro inguru lortu ditu ekimenak. Bildua zuten diruari mugatuta, parkeko altzarietarako aurrekontuak eskatu zituen Parkea Martxan ekimenak lau enpresatan. Horrela, lau proposamen bildu zituzten eta horien artean gustukoena aukeratu zuten haur lakuntzarrek, bozketak bidez. Lehengo aukerak (Cantabroak) 80 boto lortu zituen, 2. aukerak (Sumalim) 132 boto, 3. aukerak (Konpani) 87 boto eta 4. aukerak (Lurkoi) 66 puntu. Beraz, Sumalim etxeko altzariak izango dira Lakuntzako parkean kokatuko direnak.

## Elkartasuna: enpresetatik herritarretara



Urbanizazio lanak enpresa batek egin ditu, baina eskolen aurreko metalezko itxitura guztia, aldiz, boluntarioei eta auzolanei esker egiten ari da Udala, "dirua aurrezteko". Lakuntzako hainbat enpresa edo lakuntzarrenak diren hainbat enpresa - Industrias Barga, Saprem, Lakumatek zurgindegia, Galvanizados Lacunza...- itxitura egiteko lanetan kolaboratzen ari dira: bai materiala uzten, materiala egiten eta kokatzen, edo euren langileen esku lana jartzen. Horretaz aparte, hainbat boluntario hesitura egiteko lanetan buru-belarri ari dira egunotan. Soldatzen eta metalean lan egiten duten lakuntzarrek dira bereziki boluntario horiek. Eta Lakuntzako gaztetxoak ere inplikatu daude: auzolanez makina bat ohol kolorez margotu dituzte, gero ohol hauek hesian jartzeko.

### Oso eskertuta

"Oso eskertuta gaude lakuntzarren konpromisoarekin. Borondatez makina bat jende etortzen ari da bai margotzera, hesiturako lanak egitera. Baita parke berria jartzera eta parkeko gunea txukuntzera ere. Jendeak konpromiso asko du honekin guztiarekin eta auzolanera deitu ditugun haur eta gazteek ere oso ongi erantzun dute. Ez dugu hitzik eskertzeko" gaineratu du alkateak.

Garinek uste du bizpahiru astetan bukatuko direla lanak. "Boluntarioek itxitura lanekin jarraitzen dute. Bestalde, aste honetan da etortzeko parkearen egitura eta altzariak eta dagoeneko jendea geratua dago parke berria izango dena kokatzen hasteko. Hurrengo auzolanak ere guztia txukun jartzera bideratuko ditugu. Asmoa da guztia bi astetan bukatuta egotea".

## Gerokoak

Zinema berriko eraikinarekin nola jokatu, ordea, ez dute zehaztu. "Momentuz urbanizazioa eta parkea bukatzea da asmoa eta gero ikusi beharko dugu zenbakiz nola gauden. Jubilatuen egoitza eta beste... aurrerago baloratuko dugu nola egin. Plazako lanak egiteko erresoluzioa ere iristear dago eta

baiezkoa ematen badigute hurrengo urtean plaza berritzea ere planteatu beharko genuke. Numeroak egin behar ditugu. Urtea ongi eramaten ari gara, gastuak ongi kontrolatzen eta diru sarrerak ere handitu ditugu. Ea denarendako ailegatzeko den. Saltsa asko daude" adierazi digu alkateak.

Festetan egunero menu berezia eta karta

948 562 549  
ALTSASU

**Basomutur Erretegia**

**TABERNA BILTOKI JATETKEA**

**KARTA BOKATAK BARRAN**

*Ongi pasa festetan!*

**FESTETAKO MENUA 25€ (BEZ BARNE)**

SARRERAK AUKERAN	BIGARRENAK AUKERAN
<ul style="list-style-type: none"> <li>Upategiko urdaiazpikoa</li> <li>Fritoak</li> <li>Patea</li> <li>Entsalada epela</li> <li>Baratzuri eta ganba nahaskia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Legatza</li> <li>Ajoarrieroa</li> <li>Txahal buztana</li> <li>Entrekota</li> <li>Sahieskiak</li> </ul>

POSTREA  
URTEKO ARDOA edo URA  
KAFAA

948 467 876 - Altsasu

## SAKANA

## 197/2006 doktrinaren kontrako epaia idatzi dute herritarrek

Larunbatean, 18:00etan, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian ekitaldia antolatu du Herrirak

Jesus Mari Mendinueta arbizuarri eta Bautista Barandalla etxarriarrari 197/2006 doktrina ezarri diete, beste hainbati bezala espetxe zigorra luzatuz. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak doktrinari ebatziko duenaren zain daudela, "gizartearen aktibazioan" lan egin du Herrirak. Herritarren epaia izeneko ekimena horren lekuko. Udan 80 herri bisitatu dituen koaderno handiak doktrinari buruzko herritarren ekarpenak jaso ditu. Azken geldialdia bihar Iruñean egingen du. Ekitaldiko soinu banda Luisillo Kalandraka eta Pello Reparaz sakanda-

rren Vendetta taldeak sortu du eta 2.000 laguneko abesbatza batek kantatuko du bihar.

Herrirako Jon Garaik salatu duenez, "oraindik ere krudelkerian eta mendekuan oinarritzen da. Espetxeetako egoera geroz eta okerragoa da, eta presoan eta haien senitartekoen sufrimendua, berriz, inoizko handiena". Garaik gaineratu duenez, "begi bistakoa da estatuek ez dutela pauso bakar bat ere egin nahi konponbidearen eta bakearen alde, eta egunero ikusten dugu zer nolako mespretxua dieten giza eskubideei". Egoera iraultzeko euskal herritarrok baldintza egoiak sortu beharko ditugula gaineratu zuen.

### >> Etxarri Aranatz



Pintada Jesus Ulaiar Liziaga zenaren etxeko ate ondoan.

## Agertutako pintadak salatu dituzte

Igande goizean hainbat etxetan ETA goratuz pintadak agertu ziren. Haiek gaitzesten lehenak PPkoak izan ziren. Juan Antonio Extremera zinegotzi popularrak adierazi zuenez, "halakoez erakusten dute ETA eta bere ingurua hor jarraitzen dutela, gizartea mehatxatuz". Extremerak salatu du pintada horietako bat ETAk hildako Jesus Ulaiar Liziaga zenaren etxean agertu zela: "ezin da onartu biktimen memoria horrela iraintzea, ezta herritarrek halako mezu mespretxagarriekin esnatzea". Nafarroako PPTik ETAr "desagertzeko, armak emateko, biktimei barkamena eskatzeko eta benetako askatasunaren alde apustu egin dezala" eskatu diote.

**Bilduk** Nafarroako Parlamen-

tuan duen bozeramaile Bakartxo Ruizek "arbuia" egin zituen pintadak. Ruizek adierazi zuenez, "egoera politiko berrian gaude. Halako ekintzek ez dute zentzurik eta arbuia egiten ditugu".

Presidentzia, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrasek adierazi duenez, "gogor gaitzetsi behar da elkarbizitza, bakea eta herritar guztion askatasuna mantentzen ez duen edozein ekintza mota". Kontseilariak gaineratu zuen "mehatxuak eta behartzeak, agerikoak edo ez, onartezinak dira". Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernu Ordezkaritzaren artean pintadak lehenbailehen ezabatzeko sinatutako protokoloa gogora ekarri zuen Morrasek.

### Ospa Egunaren ondorengo erreakzioak

## SAKANA



## LABek Guardia Zibilak Inasan eta Altsasun izandako jarrera salatu du

"Sakandarren artean arrazoi ugari daude errepresioaren kontra borrokatzeko. Errebindikazio demokratiko hori kriminalizatze saiakera salatzen dugu"

Sindikatu abertzaleak nabarmendu duenez, finantza krisiak eraginez "enpleguaren defentsan edo zerbitzu publikoen eta pentsioen defentsan aritzeagatik sakandar askok talde polizialen jazarpena jasan dute. Beraz normala da Sakanan gero eta gehiago izatea, indar errepresibak nahi ez ditugunak". Horregatik, "guztiz demokratikoa da euren irteera aldarrikatzea. Are eta gehiago protesta hau jai giroan eta bakean ospatzen denean". Inasako langileen kontra Espainiako Gobernu ordezkari Carmen Albak "Guardia Zibila Irurtzunera modu neurrigabearen eta bortitzaren" bidali zituela salatu du LABek. "Lan eskubidea defendatzen ari ziren langileak kolpatu eta zigortu zituzten kriminalak bailiran". Ondorioak: "langile batek bi hankak hautsita eta 6 herritar 300 eta 6.000 euro arteko isun banajatzeko salaketa" (isuna jasoko duten kopurua handitu daiteke). LABetik gogorarazi dute otsailean Sakanan egindako manifestazioaren bezperan auto-karabana batean parte hartu zuen sindikatuko kide batek bozina jasotzeagatik 1.800 euroko isuna jaso zuela Guardia Zibilarengandik. Irurtzunen eta Altsasun errepresioak kaltetutako guztiei elkartasuna adierazi die LABek. Sindikatutik zehaztu dutenez, "gaur egun Sakanan enplegu eta zerbitzu publiko duinak behar ditugu, indarra eta errepresio soberan daude eta beraz indar errepresiboez ez dute lekuri gure eskualdean".

## Fernandez de Mesa kuartelean bisitan

Guardia Zibilaren Zuzendari Nagusi Arsenio Fernandez de Mesa atzo Altsasuko kuartelean izan zen. Han destinatuta dauden guardia zibilak pertsonalki zoriandu zituen "Ospa Eguneko festetan egindako lan bikainagatik, segurtasun indarren eta erakunde kontrako zenbait ekitaldi eragotzi zituztelako". Fernandez de Mesak agenteak zoriandu zituen ere, "Guardia Zibila eta Foruzaingoa barregarri uzten zituzten fallak lokalizatzeagatik".

Fernandez de Mesak agenteek egunerokoan egiten duten lanari bere, erakunde guztiaren eta Barne Ministerioaren babesa eman die. Guardia Zibilaren Zuzendari

Nagusiak azaldu zuenez, Altsasuko kuartelean 12 herritar 16.000 pertsonen segurtasuna bermatzen da eta nabarmendu zuen guardia zibilaren jardunagatik aurtur eskualdean krimen-kopurua %5 jaitsi dela.

Joan den urtean, irailaren 5ean, Altsasuko kuartelean bisitan izan zen Fernandez de Mesa. Orduan ere Ospa Egunaren ondoren izan zen, Guardia Zibila herritik kanporatua zela parodiatu ondoren. Fernandez de Mesak bisita baliatu zuen ikusteko kuarteleko teiltua berritzeko lanak ia despedituta daudela. Joan zen urteko bisitan Zuzendari Nagusiak berak lan horiek egitea hitz eman zuen.



Fernandez de Mesa agenteekin hizketan kuartelaren aitean. GUARDIA CIVIL

### >> Nafarroako Gobernuak babesa azaldu die segurtasun indarrei

Ospa Egunaren kontura Javier Morras Presidentzia, Justizia eta Barne kontseilariak segurtasun indarrei babesa azaldu zien, "denak askatasunean eta segurtasunez bizitzea ahalbidetzen dutelako". Morras kontseilariak gaineratu zuenez, "adierazpen askatasunaren bermepean ez duela denak balio". Kontseilariaren esanetan "edozein herritarrek segurtasun indarregatik gorenko errespetua izan behar du".

### >> PPK segurtasun indarrak barregarri uzteko saiakera gaitzetsi du

Popular nafarren buru Enrique Martinek baieztatu duenez, "Guardia Zibilak eta Foruzaingoak gure errespetuaz aparte gure esker ona merezi dute". Martinek irmoki gaitzetsi du inguru abertzaleak Ospa Egunean Estatuaren sinboloak eta erakundeak barregarri uzteko saiakera. Bestalde, PPre Altsasuko zinegotziak, Francesc Parisek, segurtasun indarrak zoriandu ditu herrian egiten duten lan handiagatik, "beharrezkoak dira". +www.guaixw.net

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisaauak

Festetan ere eguneko ogia hemen!

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763

## Ospa Egunaren ondorengo erreakzioak

## » Altsasu

Espainiako Gobernuko ordezkari Carmen Albaren dimisioa eskatu du

Astelehenean egindako osoko bilkuran Altsasuko Udalak Ospa Egunean asteburuan herriak bizi izandako "salbuespen egoera" salatzen. Aldi berean, udalak babesa azaldu zion herritarren adierazpen askatasunari, edozein motako kultura, aisialdi, festa edo aldarrikapen antolatzerakoan.

Carmen Albarekin bilera eskatuta dutela aurreratu zuten alkatezako taldeak. Onartutako mozioan hari Altsasun hedatutako operatiboaren inguruko azalpenak eskatuko dizkiote. Bestalde, festetako zenbait ekitaldiren debekua dela eta udal taldeak ere Albarekin hitz egiteko nahia azaldu du. Bestalde, mozioan Albas dimisioa ematea eskatu zen, "Altsasuko herriarekin erakutsitako bortizkeriagatik".

Azkenik, Altsasuko Udalak Espainiako Gobernu Ordezkaritza Nafarroan ezabatzea eskatu zuen. "Aldebiko erlazio, eskumen gaitasun eta autogobernu eskubideak" argudiatu zituzten erakunde hori desegiteko. Mozioaren alde Bilkuko eta Aralarreko bost zinegotziek bozkatu zuten. NaBaiko hiruak, PSNkoa eta IU-EBkoa abstentitu egin ziren. UPNkoak ez zuten bozketan parte hartu.

# Udalak Ospa Eguneko "salbuespen egoera" salatu du



Altsasuko Udalak Ospa Eguna izan zuen hizketagai nagusi astelehenean. ARTXIBOA

## Iritziak

Mozioaren alde bozkatu zutenen dako Ospa Eguneko debekua "adierazpen askatasunaren urraketa argia da. Udalak herritarren askatasunak bermatu beharditu". Haien iritziak, Guardia Zibilarren hedapen handiak gure herritarrendako benetakorria izan da eta askorrendako, gutxienez, herrian barna ibiltzeko molestia".

NaBaiko zinegotziek salatu egin zuten "Carmen Albak agorriaren 31ko asteburuan zuzendu zuten Guardia Zibilarren hedapen guztiz neurrigabea". Koalizioko kideek gaineratu zuten, "gure ustez lortu beharko litzatekeen helburuaren kontrako ondorioak sortzen dituzten estrategiekin ez gatoz bat; herriko jende askok hala pentsatzen du". NaBaitik

adierazi zuten "mozio honen moduan, espirala elikatzen bideratutako edozein ekimenetan ez dugu parte hartuko; haiek altsasuar gehienei eragiten die eta herriaren elkarbizitza normalari eragiten diote".

IU-EBtik adierazi zen "altsasuar gehienek ez dute nahi eta ez dituzte Alde Hemendik, Ospa eta bestelako ekitaldi eta ekimenak

ulertzen, kontrako efektua sortzen dutelako. Hau da, polizia presentzia gehiago, kontrol gehiago eta mota guztietako isunak". Koalizioa halako ekimenetan ez zuela parte hartuko aurreratu zuten zinegotziak. IU-EBtik Altsasuko polizia agintariekin eta gobernuko ordezkariarekin hitzegin beharra zegoela nabarmendu zen, "gehiagikeriak, kontrolak eta bidezko ez diren isunak salatzen; gauzak normaltasun gehiagorekin pasa daitezzen".

Ospa mugimenduko kide batek hitza hartu zuen esateko: "aldarrikapen hori, beste edozein bezala, kalean egoteko borrokan jarraituko dugu. Horretarako lan egiten Udalean sortu den Errepresioaren Kontrako Batzordearen helburua "errepresiorik gabeko herri bat" dela; "desagertzea helburu duen batzordea da. Albiste pozgarria litzateke". Ospa mugimenduak kalean zilegiak diren aldarrikapenak egiten segituko duela adierazi zuen. Udal taldeak batzordean parte hartzea animatu zituen.

## »

## Estatu poliziala salatzen segituko dute

Plazan bildutako ehunka altsasuarrendako "desmilitarizazioaren inguruan piztu diren borroka estatua-afera bihurtu dira"

Aurreko asteburuko eta asteazkenean Altsasuk "sufritu zuen eraso polizial eta politikoari herri bezala tamainako erantzuna emateagatik" eskerrak emanez hasi zen larunbateko prentsaurrekoa. Hainbat altsasuar Ospa Egunaren inguruan gertatutakoa salatzen, "argi dugu ez dela zirku hutsa izan".

Plazara bertaratutakoek salatu zuten, "historikoki Euskal Herriak sufritu duen inposizioa armen bidez, indarrez, mantendu

## Deia

Ospa mugimenduak antolatuko dituen mobilizazioetan parte hartzea deitu zuten larunbatean. Eta iragarri zuten lastailaren 12rako Ospa-k zerbait antolatuko duela.

nahi dute. Kontrako ahotsak modu basati eta oldarkorren isilarazi nahi dituztela ziurtatu zuten. Ospa Egunaren ingurukoa "eraso isolatua ez dela izan" gaineratu zuten. Eta "aski dela" gaineratu zuten: "gerra egitera etorri diren indar

okupatzaileek alde egin behar dute". Ospa Egunaren kontura emandako erantzunean altsasuarrek "sekulako duintasuna erakutsi" zutela nabarmendu ondoren, "etorkizunean bide beretik jarraituko dugula argi utzi diegu".

Galdera sorta bat luzatu zuten larunbateko agerraldian: "Zergatik ezin du herri honek adierazpen askatasuna praktikatu? Zergatik bihurtzen dute konfrontazio eremu jai giroan ospatzekoa den eguna? Zergatik dira Altsasun

delitu beste lekuetan guztiz arruntak diren deialdiak? Zergatik tematzen dira behin eta berriz gure herriaren izena zikintzearekin?" Gogoratu zuten duela bi urteko Erregearen Diskurtsoa parodiarekin ez zela inongo deliturik izan.



Errepresioaren aurrean, herri erantzuna. Mezu hori zabalduta nahi izan zuten plazan bildutakoek.

FRONTOIKO TABERNA

ONGI PASA FESTETAN

948 469 138

ERKUDEN 4 · ALTSASU

Ongi pasa festetan!

maríaeugenia

Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com

Arratsaldez zabalik

Lortu deskontuak gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722

El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa

3 litroko garrafak

24ºtakoa

29ºtakoa

35ºtakoa

Geltoki auzoa 11

Altsasu

948 467 317 · 696 979 279

hijosdegoikoetxea@yahoo.es

## SAKANA

## Gizarte zerbitzuen finantziazioa aldakorra izanen da

Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzuak finantzatzeko onartu zuen Foru Agindua agorrilean sartu zen indarrean. Gobernuak irizpide zehatz batzuk zehazten ditu gizarte zerbitzuei diru-laguntza emateko. Nafarroako Gober-

nuak dirua banatzerakoan kontuan izanen ditu, besteak beste: mankomunitateak hartzen duen eskualdearen zabalera, populazioaren zahartzea, adin txikikoen kasu kopurua, gizarteratze kasuak, inmigrazio kasuak eta

erakundearen aurrekontuak.

Gizarte Zerbitzuen mankomunitate bakoitzean datu ezberdinak daude eta, ondorioz, gobernuak udal zerbitzuei eman beharreko diru-laguntzak, urteko datuen arabera, ezberdinak izanen dira.



Sakandarrak ostiralean izan zen Zorri Azokan.

### >> Etxarri Aranatz

## Zazpi ikastaroren artean hautatzeko aukera

### Zirko-eskola martxan jarri nahi da

Etxarri Aranatzko Udalak ikasturte berrirako ikastaroak prestatu ditu. Hurrengoak izango dira: pintura, lentzeria, dantza latindarrak, soinketa lasaia, aerobic, Pilates eta Gap eta yoga. Ikastaroak ateratzeko gutxienik 15 lagunek eman beharko dute izena. Etxarri erroldatutakoek izanen dute lehentasu-

na. Jendea soberan gelditzen bada, zozketa bidez osatuko dira taldeak.

Izena emateko inprimakia bete behar da eta Etxarri Aranatzko Udalerari bidali edo udal bulegoetan bertan utzi, irailaren 27ra arte. Informazio gehiagorako Udaleko Kultura Zerbitzura jo daiteke edo [www.etxarriaranatz.com](http://www.etxarriaranatz.com) web gunean sartu.

### Zirko-eskola

Zirko-eskola jarri nahi da martxan Etxarri Aranatz, 8 urtetik gorako neska-mutilei zuzendua.

Argibide gehiagorako kultura bulegora jo. Bestalde, Etxarri Aranatzko Udala ikastaro motzak antolatzen ari da eta herritarren proposamenak jaso nahi lituzke.

### >> Olazti

## Zazpi ikastaroko eskaintza

### Horiematik bi berriak dira: kapoeira eta akrobaziak eta euskal dantzak

Kurtso berriaren hasierarekin Olazti Udalak antolatu dituen ikastaroen berri eman du. 7 ikastaro eskainiko dira aurtan, ohikoak diren yoga, Pilates, aero dance, indoor zikloa eta mantentze soinketa, eta bi ikastaro berri: kapoeira eta akrobaziak eta euskal dan-

tzak (helduak eta gaztetxoak). Erburua kiroldegian eskainiko dira.

Interesatuak irailaren 20a baino lehen eman beharko dute izena Olazti Erburua kiroldegian bertan edo 948 564 512 telefonora hots eginez. Prezioen eta xehetasun guztien berri jakiteko telefono berberera edo Erburua kiroldegira.

### >> Altsasu

## Ikastaroen eskaintza zabala eta anitza Altsasun

### Emakumeen Bilguneak, ludotekak, Intxostiapunta gazteria zerbitzuak, kirol eskolek, Zelandi kiroldegiak eta Kultura Zerbitzuak eskaintzen dituzte

Altsasuko Udalak ikasturte berrirako ikastaroen eskaintza zabala prestatu du. Hain zuzen ere ondoko hauek: Emakumeen Bilguneak, ludotekak, Intxostiapunta gazteria zerbitzuak, kirol eskolek, Zelandi kiroldegiak eta Kultura Zerbitzuak eskaintzen ditu aipatu ikastaroak.

### Hobariak errenta txikiendako

Festetako adinduen bazkariarekin eta kiroleko matrikularekin egiten den moduan, Altsasuko Udalak errenta txikiak dituzten herritarrei hobariak emanen dizkie kultura eta berdintasun sailletako ekimenetan izena ematean. Altsasuko Udalaren asmoa da hobariaren sistema hori sail guztietara zabaltzea eta pixkanaka ari dira horretan.

Errenta aitorenaren arabera, hobariak emateko lau multzo ditu udalak: 4.000 euro arteko errentak



Gogoko jarduera opatzeko aukera ematen du eskaintza zabalak.

dituztenak; 7.500 eurora arteko errentak dituztenak; 15.000 euro artekoak eta azken kopuru hori baino handiagoko errentak dituztenak.

### Izena emateko

Izena ematea zabalik dago irailaren 20ra arte, [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) web

gunean, 012 telefonora deituta edo Intxostiapunta gazteria zerbitzuan.

Ikastaroen ordutegiak, prezioak, arautegia eta beste jakiteko aipatu tokietara jo behar da. Bestela, Altsasuko Udalak etxe-etxe banatu duen eskuorrian topa daiteke informazio osoa.

### Emakumeen Bilguneak antolatutakoak

Ikastaroak: joste lanak, lentzeria, zeramika artistikoa, etxerako konponketak eta eho-ziriak. Tailerrak: hizketaldi literarioak, heltzeko plazerra, autozagutza eta garapen pertsonala eta auto-defentsa: errespetua lantzeko tailerra.

### Kultura zerbitzuak antolatutakoak

Iortiako Antzerki Tailerra.

### Kirol eskolek eskainitakoak

Yoseikan budo, taekwondo, gimnasia erritmikoa, saskibaloia, areto futbola, futbola, atletismoa, pilota, tenisa, irristaketa, multikirola...

### Ludoteka

Haurrendako ludoteka eskaintza: 2009-2006 artean jaiotakoak, 2005-2001 artean jaiotakoak eta 2010-2013 artean jaiotakoak.

### Intxostiapuntakoak



Irri tailerra, sexualitatea, kosmetika naturala, suakaldaritza (ahogozoak partekatzen), blogger-a, wordpress-a, psikobalet I, psikobalet II eta gaikako foroak. Horretaz gain, gazte-txokoa urriaren 4tik aurrera hasiko da lanean.

### Zelandi kiroldegiak eskainitakoak



Igerileku estalian: Helduendako igeriketa (aurreratua), helduendako igeriketa (hastapena), gazteendako igeriketa, aquagym leuna, aquagym, aquagym igerileku handian, jaioberriendako igeriketa eta haurren igeriketa (txano txuria, txano horia, txano laranja, txano berdea eta txano urdina). **Lehorrekoak:** mantentze soinketa, soinketa leuna, Pilates leuna, Pilates aurreratua, Pilates, Aero dance (helduak), gaur egungo dantzak (6-9 urte), gaur egungo dantzak (10-16 urte), Power Pump, Indoor zikloa, Indoor Zikloa junior (13-16 urte), dantza latinoak, dantza latinoak aurreratua, Swiss Ball (euskaraz), yoga, kirol anitza (2006-2007), kirol anitza (2008-2009) eta sabel dantza.

**Sorgiñak**  
taberna

LAKUNTZA  
948 576 357

**FELIX OTEGI**

**TAXIA**  
9 lagunendako tokiak

**660 342 071**  
**IRURTZUN**

**Redin**  
Lurrindenda eta kosmetika

Ongi pasa festetan!  
948 562 452 ALTSASU

**Zelandi kiroldegiak eskainitakoak**

&gt;&gt; Altsasu

# Borrokaren balioa aitortuz bukatu da Lazaro Echeverriako greba

Mugagabeko greba 190 egun eman ondoren, herenegun sinatu zuten aldeek enpresa ituna

Martxoaren 6an ekin zioten protestari Lazaro Echeverriako langileek. "Gure eskubideak defendatzeko bide hau gelditu zaigu bakarrik" esan zuten orduan. Enpresak haietako sei kaleratu eta lan baldintzetan aldaketa nabarmenak egin nahi zituen eta langileak ez ziren ados horrekin. Kaleratuak berriro hartzea edo kalte-ordain handiagoa ematea eskatzen zuten, baita enpresa ituna ere. Protestaldiaren ondoren 22 langileak ostirala eta asteazkena bitartean bueltatuko dira lanera.

Sei hilabete eta 10 egun iraun duen borrokaldiaren ondoren, dozena erdi langile gutxiago izanen ditu enpresak, baina kalera-tuek lan egindako urte bakoitzeko 25 eguneko kalte ordaina jasoko dute, 19 hilabeteko topearekin. Enpresaren hasierako eskaintza 20 egun eta 12 hilabeteko muga eskaintzen zituen.

Horrekin batera, enpresak proposatutako malgutasun proposamena atzera bota dute eta zuzendaritzak proposatutako soldata murrizketak (%10) txikitu egin dira: aurtengo %2 jaitsiko zaie soldata langileei eta heldu den urtean %1,5. Aldi berean, lan hitzarmen bat lortu ez bada ere, enpresa paktua lortu dute Lazaro Echeverriako langileek. Aurtengo eta heldu den urtean izanen da indarrean eta urte bateko ultra-aktibitatea izanen du.

## Borrokaren beharra

Sakanako ELAko arduradun Gorka Viergek esan digunez, helburu nagusia enpresa hitzarmen lortzea zen. "Hori lortu ez bada ere, langileen borroka aitortu beharra dago, enpresak proposatutako xantaia geldiaraztea lortu dutelako. Lan erreforma baliatuz jardun sindikalarren bidez hamarkadetan lortutako lan eta soldata eskubideak suntsitu nahi izan ditu".

Viergek Lazaro Echeverriako

## Sentipenak



Langileei protestaldia "luzea eta gogorra" egin zaie. Hala ere, laguntza asko eta animoak jaso dituztela aitortu dute eta, horregatik, sakanarrei esker ona azaldu nahi izan diete. "Egitekorik ez genuela esaten zigunik ere egon da. Erakutsi dugu elkarrekin egonda zerozer lortu daitekeela. Eta uste dugu lortu dugula. Mereti du gure lanpostua defendatzea. Harro egoteko modukoa da". Denak batera izatearen garrantzia ere nabarmendu dute. Borrokaldi luzeak langileak elkar hobe ezagutzeko eta adiskidantza handitzeko balio izan duela aitortu digute. Lortu duten barne lasaitasuna izanen da langileen borroka akaberako ospakizuna.

langileak adibidetzat jarri ditu (denak daude afiliatuta): "soilik sindikalizazio handiko enpresetan eta batasun eta elkartasun kontzeptu batek bakarrik geldia-

raziko ditu patronalaren oldarraldiak". ELAko kideak enpresetan langileak antolatzea ezinbesteko dela uste du. "Defentsa kolektiborik ez den enpresetan

hitzarmen, lan baldintza eta esku-biderik gabe geldituko gara" gaineratu du Viergek, ziurtatuz "gehien borrokatzen den tokitan gehiago lortzen dela".

&gt;&gt;



Larunbatean eta domekan majo bazkaldu zuten elkartean.

## Guadalupeko Ama San Juanen

Domekan despeditu zituen La Encinak Extremadurako Eguna dela eta astebururako antolatutako ekitaldiak. Erkidegoko eguna ospatzeko, domekan, 120 izan ziren mahaira eseri zirenak. Zuzendaritzak prestatutako Extremadurako ohiko jakiak dastatu zituzten. Larunbatean bazkide eguna ospatu zuen elkarreak eta 70 pertsona bildu ziren mahaiaren inguruan bazkaltzera. Aurtengo bazkaria Guadalupe Rico Leal eta Mariano Garcia Garrancho omentzeko baliatu zuten. Ondoren DJ Sergeiren doinuekin dantza egiteko aukera izan zuten.

Ostiralean, egitaraua zabaltzeko Yolanda Pelaez ohorezko dama eta Ekiñe Gallardo ohorezko dama txikia izendatu zituzten. Juan Valdeolmillosek, Nafarroako etxe erregionaletako federazioko presidentek irakurri zuen pregoia. Ondoren La Union abesbatzaren

eta Isabel Ruiz kantariaren emanaldia izan zen. Horren ondoren elkartean izan zen auzatea goizalderara arte luzatu zen.

## Asmoak

Francisco Chaparro Bazan da elkarreko burua, martxoaren 2ko batzarren ondoren zuzendaritza berri-itu eta gero. Zuzendaritzarako hautagaitzarik izan ezenez, bera lehendakari-orde gisa hartu zuen ardura. Heldu den urterako kultura jarduerak aldatzeko ideia bueltaka dutela adierazi digu Chaparro: "guztia pixka bat pilatzen zaigu. Irailaren 8an, Extremadurako eguna, ospatu nahiago dugu. Eta gero, kultur jardunaldiak feriak eta eguberri artean antolatzea. Guztia bizpahiru asteburutan banatzea". Festak gainean daudela ere gogorarazi zuen. Gaur egun 66 bazkide ditu elkarreak eta, gainera, beste 40 kultur-bazkide ere badaude.

## SAKANA

### Sakandarrak Diadan

Asteazkenean ospatu zuten katalanek Diada. Inoizko Diadatik historikoa izan zen, ANC Biltzar Nazional Katalanak *Via Catalana cap a la independència* lelopean antolatutako ekitaldiak Alcanar eta El Partusherriak lortu zituelako, 400 kilometroko giza kate erraldoi baten bidez. Milioi bat pasa lagun bildu zituen ekimenak. Tartean hainbat sakandar egon ziren.



Etxarriar koadrila bat Bartzelonan, Joxi Bakaikoa alkatea buru dela.

## Etxarri Aranatz



### Estalopeko azoka

Jendea poliiki erakarri zuen ostiralean Zorri Azokak. Arratsaldean udaletxeko estalopetik pasa zirenak arropa, arte-lanak, ardoa, bidezko merkataritzako produktuak, gazta, baratzeko produktuak eta zur-lanak ikusi, ekoizleekin hitz egin eta eros-terko aukera izan zuten.

BETI BEZALA FESTAREN ERDIAN!

Kaixo  
Kafetegia - Jafetxea

GARCIA XIMENEZ 20-22 TFNO. 948.46.91.24 ALTSASU

&gt;&gt; Arakil / Irurtzun

# Ganadua bueltan Irurtzunerera

**Igandean, 9:30etik aurrera, lehen sektorearen eta zuzeneko salmentaren erakusleho bihurtuko da herria**

Irurtzunen astearteroko azokaz aparte aste honetan beste azoka bat izanen da, etzi: Irurtzengo eta Arakilgo I. bertako ganadu azoka hartuko du. Bertako arrazetako azienda, garaiko nekazaritza produktu ekoizleak eta artisauak elkartuko dira igandean Irurtzunen. Musika, kale animazioa eta talogileak ere izanen dira.

Garai bateko irudia berreskuratu du Irurtzunek, "garai batean herriari merkataritza izaera eman zion nekazaritza- eta abere-azoka famatua berreskuratuz". Hori bai, "garai berrietara egokitu, zuzeneko salmentaren alde apustua eginez eta herria eta eskualdea garatzeko ekarpena eginez". Izan ere, antolatzaileen iritziz, "Sakanako ekonomia berreskuratzen laguntzeko" lan ildo bat da azokak hartzen duena.

Antolakuntzan ari den Belardiko kide Aritz Ganboak Belexe Irratian (FM 107,3) azaldu duenez, duela bi urte martxan jarri zuten euren ekimenarekin eta Etxarrin egiten den Amalurra azokarekin hainbat aldaketa sustatu nahi dituzte: ekoizpen eredu, iraunkortasunean, kontsumo eredu iraunkorraren alde eta abar. Ganboak esan duenez, "ikus-puntu horretatik herriko plazen, azoken berreskurapena izan da gure helburuetako bat. Baita nekazariaren inplikazioa plaza horiek berreskuratze aldera. Ekoizleen eta jendartearen arteko lotura sortzea".

Belardiren, Sakanako Garapen Agentzia eta Irurtzengo eta Arakilgo udalen elkarlana sortu zen eta horren emaitza da etziko azoka. Ganboaren esanetan "baikualtatiboki, bai kuantitatiboki Irurtzengo azokak suposatuko duena ikaragarria izanen da. Bertako arrazen alde ari diren elkarteak, nekazariak eta artisauak inplikatzeko lortu dugu. Denen artean Irurtzunek zuen azoka garrantzitsu hori berreskuratu dugu. Baina ez hori bakarrik, irizpide duin batzuekin berreskuratzea".



Brun forjak, Arakilgo Udala, Belardi, Garapen Agentzia eta Irurtzengo Udaleko ordezkariak izan ziren aurkezpenen.

## Aitortza

Irurtzunen etzi egiten den azokan izanen diren abereak bertako arrazetakoak izanen dira. Horrekin antolatzaileek bi helburu lortu nahi dituzte. Alde batetik, herri-

tarrei bertako arraza horiek eta haien hobekuntzan lan egiten duten elkarten zeregina ezagutzeko aukera eman nahi dute.

Baina, aldarrikapenari ere egin nahi diote tokia. Antolatzaileek

adierazi dutenez, ikusgai izanen diren arrazetako animaliak arriskuan daude. "Bertako arrazak genetikoki hobetzeko eta haiek kontserbatzeko lanean ari diren elkarteak 2.009az geroztik Neka-

## Antolatzaileak

Irurtzun eta Arakilgo udalak, Sakanako Garapen Agentzia, Nafarroako bertako ganadu arrazen elkarteak, Euskal Herriko artisauen elkarte (Arbaso), Belardi elkarte eta EHNEko Bizilur taldeko nekazari eta abeltzainak.

## Kopurutan

11 abeltzain abere azokan.  
22 ekoizle azoka gardenean.  
14 artisau

zaritza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren murrizketa gogorak nozitzen ari dira". Landa eremuaren kudeaketan eta sozio-ekonomian arrazok garrantzia dutela azpimarratuko da eguerdiko ekitaldian.


Horregatik, eguerdian, elkarte horiei guztiei (teknikari eta abeltzainak), egiten duten lanagatik, merezi duten aitortza egiten zaie. Omenaldian Arakil eta Irurtzengo alkateek parte hartzeaz aparte, Sakanako beste udaletako ordezkariak ere izanen dira. Guztien presentziarekin islatu nahi da ibarrean lehen sektorea apustu estrategiko bat gisa hartu dela eta hori adierazi nahi da. "Irurtzengo azoka ez da zerbait isolatua. Etxarririko Amalur azokarekin eta etorriko diren beste batzuekin eskualdeko estrategia baten barruan daude", azaldu digu Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak.

## Atzera eginez

Orain dela 43-50 urte, denbora tar-te horretan desagertu zen Irurtzengo azoka. Belardiko kide Aritz Ganboak Belexe Irratian (FM 107,3) azaldu duenez, "ez zen bat-batean desagertu. Poliki-poliki erortzen joan zen". Ganboak horretarako bi arrazoi eman ditu. Bata, osasun arloan jarritako lege zorrotzak. Bestea kontsumo eredu aldaketa garrantzitsua. "Lehen sektorea, jarduera sozio-ekonomikoa gisa ez zen bideragarri. Ganaduak bete behar zuen arautegiagatik azienda mugitzea oso zaila zen. Nekazariari ere ahalegin handia eskatzen zien eta pixkanaka bitartekari edo tratanteen eremu bihurtu zen. Eta etekinik ematen ez zenez erori egin zen azoka", azaldu du Belardiko kideak.

Hala ere, abeltzain eta tratante beteranoak Irurtzunen biltzen jarraitzen dute, gosari goxo-goxoa partekatze eta sektoreko zein merkaturako azkeneko gertakizunak komentatzeko.

Lau noranzkotan zabaltzen diren errepideak eta tren (Plazaola eta Norteko konpainia) kokapen estrategikoa ematen diote Irurtzuni. Arakil ibarraren mugan dauden beste bailara txikien merkataritza gunea da Irurtzun gaur egun. Eta hori ganadu azokak sortu zuen jardunari esker da. Hasieran hilabetean behin egiten zen azoka. Ondoren hamabostero (1792-1921) egitera pasa zen. Maiztasuna handitu eta hamar egunero egitera pasa ziren (1921-1945) eta azkenik astero egiten zen, asteartetan.



Hego Euskal Herriatik, Gaztela-Leon, Aragoi, Katalunia, Sortaldetik etortzen ziren tratulariak, iparraldeko ganadu merkatu garrantzitsuenetako izan zelako (txerrikumeak, aratxeak eta zaldiak). +www.guaixe.net

## Hiru guneak

**Tokiko abereengunea (plazako frontoia)**  
Ardiak: latxa ardi arpelz eta mutur gorriak (Aslana), Nafarroako rasa ardia (Arana) eta sasi-ardia (Sasiko).

Behiak: behi piriniarra (Aspina), nafar kasta eta betizua (Asbena).  
Behorrak: Auritz (Ascana) eta Nafarroako jaka (Jacana).  
Txerriak: euskal zerria.  
Oiloak: euskal oiloa.

**Azoka gardena (Foru plaza)**  
Belardi (Sakanako ekoizleak) eta EHNEko Bizilurreko nekazari eta abeltzainek euren salmahaiak jarriko dituzte. Erosleak ekoizlearekin zuzenean egiten du tratua. Galderak egin eta zalantzak argitzeko aukera ere izanen du.

Gazta, esnekiak, ogia, ardoa, olio, barazkiak...

**Artisauak (Lizarraga kalea)**

Otero Pilotagilea (euskal kirolak, Anoeta, Gipuzkoa), Aziza Puch tailerra (ehuna, Meano, Nafarroa), Marian Corres (keramika, Gasteiz, Araba), Garbi xaboi naturalak (kosmetika, Zegama, Gipuzkoa), Aretxederra artisautza (larrua, Sopuerta, Bizkaia).

Txus Gruzeta (bitxigintza, Heredia-Barrundia, Araba), Alben (ezpartinak, Gasteiz, Araba), El Txoko (buruhandiak, Erriberri, Nafarroa), Bernat Vidal (harria, Abadiño, Bizkaia), Lorratz (arte, Abadiño, Bizkaia), Eskuz Holakatua (zura, Senpere, Lapurdi).

Zapatari (oinetakoak, Iruña, Nafarroa), Jose Luis Anso (zura, Oitz, Nafarroa) eta Marian Mayo (ehuna, Audio, Araba). Gainera, Izurdiagako Brum forjariaren erakustaldia izanen da.

**ETXE-TXURi**  
Ardi esne gordinarekin egindako gazta koipetsua

**Miguel Berastegui**  
948 460 873 · Lizarraga (Ergoiena) Nafarroa

**LIZARRAGA ARDI-GAZTA**

948 460 397  
GERTRUDIS ELSO. "Txilibistonekua" etxea  
San Donato kalea 6. Lizarraga (Ergoiena) Nafarroa

# Bertako produktoak ekoizletik kontsumitzailera

Belardi, tokiko ekonomia bulkatzeko jaio zen iaz, EHNE sindikatuarekin batera eta egitasmo honen helburua Sakanako abeltzain eta nekazarien elikagaien kontsumoa bermatzea da. Belardi egitasmoaren xedea, salmenta zuzena, tokiko edo gertuko elikagaiak eta ardura partekatua da. Salmenta zuzena eta ekoizle zein kontsumitzaileen arteko harreman ezberdinak bultzatu nahi dituzte, elkarren arteko konpromisoan eta merkaturatzeko bide motzetan oinarritutakoak, horrek harreman zuzena eta iraunkorra ziurtatzen duelako.



**ALBI**  
689042239  
www.albigaztak.com  
Arruazu (Nafarroa)



**BERIAIN**  
Tifnoa.  
K/San Andres  
Unaua (Nafarroa)




**JUANNEKO GAZTA**  
948 460 493  
Kale  
Nagusi 24  
Arbizu  
(Nafarroa)



**LARREZABAL**  
607 271 163  
K/Sto.Cristo  
de Otadia 5  
Altsasu  
(Nafarroa)



**UHARTE**  
948 464 078  
K/ Ibai 44  
Uharte Arakil  
(Nafarroa)



**SARABE**  
948 564487  
659800912  
Sarabe baserría  
Urdiain (Nafarroa)



IBARBORDA • 948 391 022 • UNANU (NAFARROA)



Kaxarna 1 • Etxarri Aranatz  
948 460 907 • 686 610 913



31820 ETXARRI ARANATZ  
legarbe3@hotmail.com

649 442 741  
948 460 215

Zure erosotasunerako,  
Guaixe Komunikazioa

Mimoz,  
tentuz, ilusioz  
egindako  
lanak



**Guaixe**  
**KOMUNIKAZIOA**  
diseinua & inprimatzea

948 564 275 / [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
[guaixekomunikazioa.blogspot.com](http://guaixekomunikazioa.blogspot.com)

» irurtzun

# Inasako langile ohiek Parlamentura eramane dute gobernuarekiko kexua

**Inasan gertatutakoa beste inon ez gertatzeko eskatu dute**

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu batzordean izan ziren herenegun Pedro Mari Jimenez (CC) eta Fernando Carrion (LAB) Inasako langileak eta Gaizka Uhartea LABeko Sakanako arduraduna. Hirurek parlamentariei lantegiaren itxiera prozesua azaldu zieten. "2012a baino lehenago hartutako estrategia baten ondorioa izanda". Inasan gertatutakoa beste inon ez errepikatze eskatu zieten parlamentariei. Nafarroako Gobernuari "utzikeriaz" jokatzeko leporatu zioten.

Nafarroako Gobernuak Inasa ez ixteko gutxienezko interesa izan balu eta ahaleginu izan balitz zer gertatuko litzatekeen galdetuz bukatu zuten agerraldia langileen ordezkariak. Izan ere, haien iritziz "foru administrazioak gizarte presioaren ondorioz hartu zuen esku Inasan, inbertsiogile bat zegoelako mobilizazioak hasi zirenean. Orduan gobernu mugitu zen eta



Inasako langileak Parlamentu aurrean protesta egin zuten. UTZITAKOIA

eskertu genion. Eta itxiera eragotzi balu ere eskertuko genioke".

Langileek Inasako industria jardura mantentzeko Nafarroako Gobernuak egin ez zituenak zerrendatu zituzten: makineriaren salmenta eragotzi; lantegia desegiteko zuzendaritzari lege-oztopoak jarri; makineriaren salerosketak kontratuaren kontrako helegiteak aurkeztu (langileek egin zuten urgentziaz); hartzekodunen lehia-

ketako administratzaileei eskatuz fase komuna bukatzeko likidazio fasean sartzeko... "Zuzendaritzaren estrategiak gidatu du gobernuaren jarduna. Langileek eskatu diogunean jokatu du beste modu batera soilik".

Inasako langileen iritziz "aitzakia" da Nafarroako Gobernuak esatea legea betetzera mugatu dela, ezin zuela besterik egin. "Ez da egia. Benetako interesa azaldu

balu bere jarrera beste bat litzateke". Hasieratik enpresaren desegitea eragozteko ahal zen guztia egin dutenak langileak izan direla azaldu zuten langileek, "zoritarrez, desiotako saririk ez dugu izan". Premiazko bilerarik ez zenez egin, parlamentuko agerraldia berandu iritsi zela ere gaineratu zuten, "jabeek Inasaren kontrola galtzeko, denen artean, estrategia diseinatu zitekeen hemen".

## Taldean iritziak

**Bilduk** eskatu zuen Inasako enplegaraldia eta koalizioaren izenean Bikendi Bareak adierazi zuenez, "Baikapen erabakia alde aurretik hartuta zegoen, langile guztiak kaleratzea". Foru administrazioak langileen alturan ez zela egon gaineratu zuen. Goikoetxearen agerraldia eskatu du.

UPNko Coro Gainzak kontseilariaren inplikazioa "nabarmendu" zuen eta presioak egin zirela ere aitortu zuen. Akabera ez langileei ez haiei ez zaiela gustatu ziurtatu zuen eta "administrazioari ezin zaio errurik bota".

PSNko Samuel Carok halakorik ez errepikatze ondorioak atera beharko direla esan zuen. Sozialistak esan zuen arrisku kapital enpresengaineko zaintzan akatsak izan direla. Foru administrazioak halakoetan zaintza zorrotzeko eskatu zuen. Gobernuak ahal due-

nak egin duela ziurtatu zuen, "bal-dintza makiabelikoak" izan zirela aitortu zuen.

Aralar-NaBaiko Txentxo Jimenezek gogora ekarri zuen duela urte bat talde guztiak ados zeudela enpresaren jabetzak hura ixteko asmoa zuela. "Errealitate bat identifikatuta izanda, azkenean, guztien gainetik pasa dira, nahi zuten eginez". Beraz, "legislazio arazo larri bat dugu", ziurtatu zuen. Gertatutakoaren inguruan hausnartzea eta eztabaidatzea eskatu zuen. PPko Ana Beltranek esan zuen beti gatazkaren bi aldeak (langileak eta zuzendaritza) entzun beharra zegoela, "arrazoitutako iritzia izateko". Beltranen iritziz "ez dut ueste inorendako izanen dela gustukoa enpresa ixtea eta langileak kaleratzea". Arrisku kapital enpresen satanizazioaren alde hitz egin zuen, "denetarik dagoelako haien arte-



an". Guardia Zibilaren jokabidea babestu zuen.

I-Eko Txema Mauleonek "enpresa bat ixtera etorri diren eskrupulorik gabeko pirata batzuen adibide garbiaren aurrean gaude". PPren gobernuaren lan eta enplegu politiken kontra egin zuen. Nafarroak dituen eskumenen barruan legegia aldatzea proposatu zuen, hala-ko kasurik ez errepikatze.

Azkenik, GeroaBaiko Manu Aierdik

Baikapek Inasa 60.000 eurotan erostea nola den posible galdetu zuen. "Hazi horretatik ernaltzen da gaintzeko guztia". Baikapek bere etekinak maximizatu nahi izan dituela adierazi zuen Aierdik. Arrisku kapital enpresen artean denetarik dagoela esan zuen. Gobernuari dagokionez, kontseilaria entzun ondoren, egin zezakeen guztia egin duen eta dirua jartzearen egokitasunaz hitz eginen zuela esan zuen.

» SAKANA

## Hizkuntza- eskubideei buruzko tailerlean izen ematea zabalik

**Ibarrean administrazioan lan egiten duten langile euskaldunei zuzenduta dago**

Nafarroako Gobernuko Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuen ardura den ikastaroan hiru helburu lortu nahi ditu. Batetik, herritarrei zuzenduta burutzen dituzten jardueretan euskararen erabilera bultzatzea. Bestetik, herritarrengan hizkuntza- eskubideei lotutako engeiamendua sustatzea eta, azkenik, langile publikoak kontzientziatu eta sentiberatzea hizkuntza- eskubideen eremuan.

Landuko dituzten artean daude: munduko hizkuntza aniztasuna eta prozesu globalizatzea; hizkuntza guztiei dagozkien eskubideak eta Euskal Herriko legeak. Horiekin batera, Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren berri emanen zaie, baita hark sustatzen duen Euskararen Telefonoarena ere.

Tailerra azaroaren 14an, ostegunarekin, izanen da, 8:00etan. Bi orduko saio teoriko praktikoa izanen da, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan egiten dena. 20 pertsonendako tokia dago. Lastailaren 11ra arte eman daiteke izena. euskara1@sakana-mank.com helbidera izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia bidali behar dira.

## 197/2006 doktrinaren kontrako epaia herritar epaia

**Larunbatean, 18:00etan, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian ekitaldia antolatu du Herrirak**

Jesus Mari Mendiñueta arbizuarri eta Bautista Barandalla etxarriarri 197/2006 doktrina ezarri diente, beste hainbati bezala espetze zigorra luzatuz. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak doktrinari ebatziko duenaren zain daudela, "gizartearen aktibazioan" lan egin du Herrirak. Herritarren epaia izeneko ekimena horren lekuko. Udan koaderno handiak doktrinari buruzko herritarren ekarpenak jaso ditu. Azken geldialdia bihar Iruñean egiten du. +www.guaixe.net

**SAN DONATO**  
estanko-paperdenda  
Irailaren 16tik aurrera  
10:00-15:00 eta 16:30-20:00  
  
Loterías y Apuestas del Estado  
Fernando Urkia kalea, 17 behea  
Arbizu · 948 462 033

9 lagunendako  
**TAXIA**  
Jon Kordon  
  
948 500 388 / 629 428 025  
**IRURTZUN**

**GANUZA SUKALDEAK**  
SUKALDERAKO ALTZARIAK  
Bainu gelako altzariak  
Horma armairuak  
Elektragailuak  
**GANUZA GARANTIAREKIN**  
Tel.: 948 460 203  
faxes: 948 460 673  
Etxarriko industrialdea  
ETXARRI-ARANATZ

**PPSOE,**  
**ETB digitala**  
**Nafarroan orain!**  
**Berria erosi taldea**

**ALZATE ERAIKUNTZAK**  
s.l.  
Zubetia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
www.construccionesalzate.com

# FESTAK

## Altsasu:



### >> Irailak 13, ostirala

**10:30ean** 2012an jaiotako haurrei harrera eta zapien jantzea udaletxe parean. Hamaiketako Gaztetxean. Antolatzailea: Peñen Batzordea eta Altsasuko Gazte Asanblada.

**12:00etan** Festen eztanda handia: Suziri jaurtiketa, ezkil-jotzea, erraldoi eta buruhandiak, Altsasuko gaita-jotzaile eta abesbatzak, peñen desfilea eta Etorbizuna dantza taldearen emanaldia. Ondoren, TXORONGO txaranga Foruen plazan.

**16:30etik 20:00etara** Peñen kafea eta kalejira Foru Plazan. Antolatzailea: Peñen Batzordea.

**18:00etan** Jokoak Gaztetxe ondoan. Antolatzailea: Gaztetxea. Antzerki-zirkoa "Love maletin" Foru plazan. Akrobaziak, umorea eta agian, amore pixka bat La Banda taldearekin.

**19:30ean** Buruhandiak eta bonba japoniarren jaurtiketa.

**20:00etan** Mexikoko mariachia Foru Plazan.

**20:15etik 21:50era** Peñen jaitsiera eta plazara iristea.

**21:30ean** Larrain dantza eta Altsasuko zortzikoa Foru Plazan.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**22:30ean** Pilota jaialdia, partida profesio-nalak, Burunda pilotalekuan.

**00:00etatik 03:00etara** Kontzertua: Kop eta Bad Sound System Foru plazan.

### >> Irailak 14, larunbata

**9:00etan** Dianak Haize Berriak bandarekin.

**11:30etik 13:30era** Txikiendako parkea: puzgarriak, crazy bike seta zappy elektrikoaren zirkuituak, zezen mekanikoa, txirrista, txikiendako ludoteka, txu txu trena Zumalakarregi plazan.

**11:45ean** La Encina elkarteak eskainitako

hamaiketako Foru plazan.

**12:00etan** Azken Ezkil-Jotzea. Segidan, herri zortzikoa Altsasuko txistularien omenez.

**13:15etik 14:30era** Eguerdiko kontzertua: kanta ahaztezinak eta Altsasuko herri kantak Trasteando taldearekin Foru plazan.

**15:00etan** Herri bazkaria Foru plazan. Bazkalostean, Haize Berriak Bandaren kontzertua. Segidan, Peñen kalejira.

**16:30etik 20:00etara** Peñen kafea eta kalejira. 19:30ean Otamena ibilbidean zehar.

**16:30etik 19:00etara** Txikiendako Parkea, Zumalakarregi plazan.

**17:00etan** Eskolarteko txirindularitza proba Otadian. Irteera eta helmuga: Amandrea kalea. Ondotik, ginkana Txioika aurreko pistan. Antolatzailea: Burunda Txirindularitza Elkarte Udalaren laguntzarekin.

**19:30etik 22:00etara** Dantzaldia Gaubela taldearekin, Foru Plazan.

**19:30ean** Buruhandiak eta bonba japoniarren jaurtiketa.

**20:15etik 21:50era** Peñen jaitsiera eta plazara iristea.

**21:30ean** Larrain dantza eta Altsasuko zortzikoa Foru Plazan.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**23:30ean** Txaratukada Foru Plazan.

**00:30etik 03:30era** Dantzaldia Gaubela taldearekin, Foru Plazan.

### >> Irailak 15, igandea

**9:00etan** Dianak Zangitu fanfarrearekin.

**10:00etan** LXXXIV. Altsasu Txirindula Lasterketa. Elite eta 23 urtez azpiko kategoriak. Antolatzailea: Altsasuko Kirol Elkarte, Udalaren laguntzarekin.

**11:30ean** Zubezia elkarteak eskainitako hamaiketako Foru plazan.

**12:30ean** Erraldoi eta buruhandien kalejira Etxarri Aranatz eta Altsasuko gaita-

jotzaileak lagunduta. Iortia zabalgunetik hasita. Bertso triki poteoa Eneko Lazkoz eta Julio Soto bertsolariarekin. Antolatzailea: EHE.

**13:00etatik 14:30era** Eguerdiko kontzertua: Etxarri Aranatzko abesbatza Foru plazan.

**15:00etan** Altsasuko Gazteak peñaren XV. urtemuga bazkaria Arkangoa kalean.

**16:30ean** Peñen kafea Foru plazan.

**16:30etik 19:00etara** Txikiendako tirolinak Baratzakobide plazan. Antolatzailea: Inigo Aritza Ikastola, udalarekin batera.

**18:00etan** XLIV. Otadiako Kristo Deuna Pilota Txapelketako finalak, Burunda pilotalekuan. Antolatzailea: Altsasuko Kirol Elkarte, Udalaren laguntzarekin.

**19:00etan** Costrini Foru plazan.

**20:00etan** Buruhandiak eta bonba japoniarren jaurtiketa.

**20:15etik 21:50era** Peñen jaitsiera eta plazara iristea.

**21:30ean** Larrain dantza eta Altsasuko zortzikoa, Foru Plazan.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**22:00etan** Gozategi taldearen kontzertua Foru Plazan.

**00:00etatik 03:00etara** Disko festa Jon Urbietarekin Foru Plazan.

### >> Irailak 16, astelehena

**9:00etan** Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.

**11:30ean** Betei Jaten elkarteak eskainitako hamaiketako plazan.

**12:00etan** Zirkolatzen ikuskizun dibertigarria Baratzakobide plazan, ondotik zirko teknikak praktikatzeko tailerrak Nafarroako Zirko Eskolaren eskutik.

**12:00etan** Herriko nagusiei abardia jarriko zaie etxean, Musika eskolako fanfarreak girotuko du omenaldia.

**12:00etan** Eguerdiko kontzertua Azabache taldearekin Foru Plazan.

## Herri mugimenduen programa: Jaiak bai, borroka ere bai!

### >> Irailak 13, ostirala

**10:30ean** Hamaiketako gaztetxean.

**12:00etan** Txupinazo URDIÑA!

**12:00etatik 14:30era** Kalejira txaranga-rekin.

**13:00etan** Elizako txoznan presoen aldeko brindisa eta zortzikoa!

**15:00etan** Presoen aldeko bazkaria plazan!

**16:30ean** Peñen kafeak, kalejira txarangarekin eta merienda bidean zehar.

**17:30ean** Gaztetxean jokoak!

**20:00etan** Herrirako bajadika!

**23:30ean** Kontzertuak plazan: BAD SOUND SYSTEM eta KOP.

### >> Irailak 14, larunbata

**13:00etan** Bertso-poteoa plazatik!

**13:00etatik 15:00etara** Errepresioaren aurkako sinadura bilketa foruen plazan!

**16:30etik** Peñen kafeak, kalejira eta merienda bidean zehar.

**18:30ean** Alde Hemendik poteoa!

**20:00etan** Argazki erraldoia Zumalakarregi.

**20:30ean** Alde Hemendik bajadika!

**23:00etan** Kontzertuak gaztetxean: Odolkiak Ordainetan+beste talde bat.

### >> Irailak 15, igandea:

#### Altsasuko gazteak peñaren

**14:30ean** Nagusien omenezko bazkaria Burunda pilotalekuan. Bazkalostean, jotak eta dantzaldia Tropicana Son taldearekin 20:00ak arte.

**15:00etan** Makarronada Foru Plazan. Antolatzailea: Peñen Batzordea.

**16:30etik 20:15era** Peñen kafea eta kalejira. Otamena ibilbidean zehar, 19:30ean.

**17:30ean** Bordetxe eta bere animaliak Baratzakobide plazan.

**18:30ean** Jokoak Baratzakobide plazan. Antolatzailea: Peñen Batzordea.

**19:30etik 20:00etara** Buruhandiak eta bonba japoniarren jaurtiketa.

**19:30etik 22:00etara** Dantzaldia Azabache taldearekin Foru Plazan.

**20:15etik 21:50era** Peñen jaitsiera eta plazara iristea.

**21:30ean** Larrain dantza eta Altsasuko zortzikoa Foru Plazan.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**22:30ean** Kantaitan Foru plazan. Herri afaria, afalondan euskal kantak. Antolotzaileak: EHE, Bierrik Fundazioa, AEK, Altsasuko peñak eta Gaztetxea.

### >> Irailak 17, asteartea

**9:00etan** Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.

**11:30ean** Amandrea elkarteak eskainitako hamaiketako plazan.

### urteurrena.

Auziperatuekin elkartasun eguna! Denok zapi laranjarekin!

**12:30etik 14:30era** Poteoa txarangarekin.

**13:00etatik 15:00etara** Errepresioaren aurkako sinadura bilketa Foru plazan.

**15:00etan** Altsasuko gazteak peñaren bazkaria Arkangoa kalean.

**16:30ean** Peñen kafeak, kalejira txarangarekin eta merienda bidean zehar.

**17:30ean** Txozna-gaztetxe poteoa Gaztetxetik.

**20:30ean** Bajadika laranja: auziperatuendako absoluzioa!

### >> Irailak 16, astelehena

**16:30ean** Peñen kafeak, kalejira txarangarekin eta merienda bidean zehar.

**17:30etik aurrera** Peñen jokoak.

**20:30ean** Errasketaren aurkako bajadika!

**22:00etan** Afari herrikoia eta ondoren Kantaitan! Foru plazan.

### >> Irailak 17, asteartea

**12:00etatik 14:30era** Poteoa herriko elkarteetarik txaranga girotua.

**15:00etan** Makarronada plazan.

**16:30ean** Peñen kafeak eta kalejira herriko elkarteetarik.

**20:30ean** Gure ikurren aldeko bajadika!

**21:00etan** NegritoSakaPie (Yerri, Wiler, Nata, Davin, Imanol, Junel) Street dance.

**24:00etatik 2:00etara** Kalejira txarangarekin. Ondoren, Ernairen txoznan Karaoke dance.

**11:30etik 14:00etara** Katzarreando Baratzakobide plazan, betiko jokoak familiartean gozatzeko.

**12:00etan** Elkarteak kalejira-poteoa. Antolatzailea: Altsasuko Peñen Batzordea.

**13:00etatik 14:00etara** Eguerdiko kontzertua: dixie doinu bereziak Euskorle-ans taldearekin Foru plazan.

**15:00etan** Koadrilen bazkaria Foru Plazan. Antolatzailea: Peñen Batzordea.

**16:30etik 20:15era** Peñen kafea eta kalejira. 19:00etan otamena ibilbidean zehar.

**17:30ean** XXIII. Playback Txapelketa Foru plazan. Ondotik, dantza garaikideko erakustaldia eta txokolate jana txikiendako, Zubiondo elkarteak antolatua.

**19:30etik 20:00etara** Buruhandiak eta bonba japoniarren jaurtiketa.

**19:30etik 22:00etara** Dantzaldia Orots taldearekin Foru plazan.

**20:15etik 21:50era** Peñen jaitsiera eta plazara iristea.

**21:30ean** Larrain dantza eta Altsasuko zortzikoa Foru Plazan.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:00etan** Festen agurra eta azken petardo-sorta Udaletxean. Ondoren Peñen kalejira.



## Festetan herriko ereserkia kantatzeko deia

Eguerdian piztuko da festa Altsasun. Ohi bezala ez dira buruhandi, txaranga, gaitero eta abarrik faltako. Gainera, festa hasiera horretan Altsasuko ereserkia

interpretatuko da. Herritarren artean kantuaren letra duten paperak banatuko dira eta haiekin kantatzera animatu nahi zaie.

## Altsasuko ereserkia

**Musika eta letra: Enrique Zelaia**  
**Itzulpena: F. Javier Goikoetxea.**

1

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU

Pa-re-ga-be-kohe-rrri.

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

Hi-ri-bil ja-tor, zin.

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

Han aur-ki dai-te-ke

sor-be-rrri i-txa-ro-pen

an-tze-ko bi-zi-tza.

Sor-be-rrri i-txa-ro-pen

an-tze-ko bi-zi-tza.

2

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

E-gi ta laz-ta-sun.

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

Bil-gune, la-gun-tza.

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

Han du-gu ba-lío-en

bil-du-ma den bi-zi-tza

poz ha-zi gai-te-zen.

Ba-li-o-en bil-du-ma

poz ha-zi gai-te-zen.

3

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

An-tzi-na-ren la-gin.

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

Nor-ta-su-nen i-kur.

AL-TSA-SU, AL-TSA-SU:

Me-re-zi-a du-gun

po-zez-koe-tor-ki-zu-na

han-txe da bi-zi-tza.

Po-zez-koe-tor-ki-zu-na

han-txe da bi-zi-tza.

Bi-zi-tzaaaaa.

NÑAL-TSA-SU!!



## Nagusien bazkaria

Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, erroldatutako 91 adindun joanen dira festetako nagusien omenezko bazkaria, haietako bi laguntzarekin. Joanen diren %42ri aplikatuz aie hobaria. Haietako %29ri %95eko hobaria aplikatuz aie eta ondorioz, eurobaten truke eskuratu dute bazkarirako txartela. Gainontzeko %71ri %60ko hobaria aplikatu zaio eta 6 euroren truke joanen dira bazkaltzera. Bestalde, 79 haurrei jarri kodietez aie udal ordezkariet gaur 10:30ean.

## Sexu erasoan aurrean

Udaltzaingoren 636 458 016 telefonora (24 ordu) hotsegindaitkeela gogorarazi dute udaletik.

MENDIA

**I. IRUÑA-BILBO ULTRATRAILA:** C.D. Navarra eta C.D. Bilbaok antolatuta, bihar, goizeko 7:00etan abiatuko dira mendizaleak Iru-

ñetik, mendi xenda eta bideen bidez Bilbora heltzeko (168 km eta 6.000 m desnibel +). Lehen kontrola Urbasan egongo da.

&gt;&gt;



Irujo eta Zabaletaren kontra arituko dira gaur Zubieta eta Ezkurdia. UTZITAKOIA

## Binakakoan bezala elkarren kontra

BINAKAKO TXAPELKETAREN REVIVAL MODUAN, IRUJOREKIN OSATUKO DU BIKOIA ZABALETAK, EZKURDIA-ZUBIETAREN KONTRA ARITZEKO.

### Pilota profesionala Altsasun

**Gaur, ostiralean, 22:00etan, Burundan (ETB1)**  
Retegi Bi-Rezusta / Jaka-Pascual Irujo-Zabaleta / Ezkurdia-Zubieta

Altsasuko festetan puntako pilotari profesionalen arteko lehiak gozatzeko aukera izanen da. Aspek prestatu du jaialdia festen lehen egunerako, gaurko.

Partida nagusian 3 pilotari profesional sakandarrak lanean ikusteko aukera izango dugu. Aurten go Binakako Pilota Txapelketan bezala, Irujorekin osatuko du bikotea Jose Javier Zabaleta atzelari etxarrendarrak. Udako jaialdietan bolada txarra pasa eta gero, ez baitu apenas partidarik irabazi, aste honetan jokatu du bi partidak irabazi ditu Zabaletak – tartean asteazkenean Xalarekin batera 17-22 irabazi zieten Irujori eta Barriolari, eta asteburuan Jaunarenare-

kin Titin eta Merino menpean hartu zituzten-, eta oso motibatuta dago Altsasuko partidarako. Arerioak ez dira nolanhikoak: Aitor Zubieta atzelari etxarriarra eta Joseba Ezkurdia aurrelari arbizuarra. Bisakandarrak oso ongi moldatu ziren Binakakoan. Etxarriarra sasoi betean dago eta udako jaialdietan oso ongi ibili da eta Ezkurdia ongi moldatzen da aurreko koadroetan.

Partida polita espero da, lehiatua eta ikusgarria, eta horri sakan-darrak elkarren kontra aritzeak pizten duen morboa gehitzen bazaio... ostiral gauerako plan bikaina. Burundara hurbilduezin dutenek partida ETB1-en jarraitu ahal izango dute, zuzenean.

### Sarrerak

Sarrerak aurretik eros daitezke 667 487 273 telefonora deituta (Isabel).

### Pilota

44. OTADIKO KRISTO DEUNA PILOTA TXAPELKETA

## Onenen ordua Altsasun

### 44. Otadiko Kristo Deuna Txapelketako finalak

**Irailaren 15ean, 18:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan**

**Gazteak, buruz buru:**  
Bakaikoa-Errandonea  
**22 urtez azpikoak, lau t'erdian:**  
Olano-Agirre  
**Nagusiak:**  
Urbieta-Peñas / Artola-Tolosa

Altsasuko festetan, igandean jokatu dira Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko final handiak. Final politak espero dira, finalerdietan maila bikaina eman baitute pilotari afizionatuek. Gazteetan Bakaikoa etxarriarra dugu lehian, Errandorearen kontra. 22 urtez azpikoetan Olano eta Agirreraren artean erabakiko da txapela, eta nagusietan Urbieta-Peñas Artola eta Tolosaren kontra ariko dira. Ea nortzuk jantzen dituzten txapelak.



Larunbatean jokatu du finalerdietan dena eman zuten pilotariak. UTZITAKOIA

### Finalerdiak utzitakoa

Larunbatean jokatu du 2. finalerdietan aldatetako egon ziren, Larunbe eta Dario ondoezik zeudelako. Horrela, gazteetan Larunberen orde Espinal aritu zen eta Darioeren orde Olano.

Gazteen mailan Bakaikoa etxarriarrak eta Espinalak jokatu du norgehiagoka oso lehiatua izan zen. Pare pare aritu ziren bi pilotariak, eta azkenean etxarriarrak lortu zuen finalera pasatzea, Espinali 18-17 irabazi eta gero.

22 urtez azpikoetan lau t'erdian ongi moldatu ziren Olano eta Lopez.

### 2. finalerdietako emaitzak

Gazteak: Bakaikoa **18** - Espinal **17**  
22 urtez azpikoak: Olano **18** - Lopez **15**  
Nagusiak: Urbieta II-Peñas **22** / Diaz-Gorriti **11**

Ezzegoen argi nork irabaziko zuen, sarritan berdindu baitzuten eta bata zein bestea aurreratu baitziren. Bukaeran, Olanok lortu zuen finalerako txartela, Lopezen aurrean 18-15 gailendu ondoren. Eta bukatzeko, Urbieta gipuzkoarrak eta Peñas nafarrak 22-11 irabazi zieten Diaz eta Gorriti uharterrari. Hasieratik aurreratu ziren, eta garaipen eroso lortu zuten.

### Kiroldegia

## Desfibriladore titulua mantentzeko birziklatze ikastaroa Sakanan

LASTAILAREN 2AN IZANGO DA ETA IZENA EMATEA ZABALIK DAGO

Arautegi berriak dioenez, 2 urtero birziklatze ikastaro bat egin behar dute desfibriladore titulua dutenek, aurretik zuten desfibriladore titulua mantendu nahi badute. Horrela, Nafarroako

Gobernuko Osasun Departamenduak, Kirol Institutuaren bidez, aipatu titulua emandako guztiei 4 orduko ikastaroa eskainiko die Sakanan bertan, lastailaren 2an, arratsaldean.

### Irailak 20

Ikastarorako izena emateko Sakanako Mankomunitatera jo behar da (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakana-mank.com postaelektronikoa), irailaren 20a baino lehen.

## Bazkide zozketa



### IRAILEKO SARIAK:

1- LOTE BAT LACTOYOGURTAK + 2 SARRERA EKAINBERRIKO KOBAZUOETARA + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK  
2- KATXIPORRETA TXANDAL BAT + AQUARIUMERAKO 2 SARRERA + XOTA

NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK  
3- KATXIPORRETA TXANDAL BAT + AQUARIUMERAKO SARRERA BAT + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK  
4- LIBURU LOTE BAT + AQUARIUMERAKO SARRERA BAT + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK

## Non erabili

## Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

### IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupitua doan.

### EROSKI CITY

ALTSASU

Eskaintza kanpainaren arabera.

### SARABE TXOKOA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

### VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

### LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian eta irakurketarako liburuetan.

### EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €ko gas-

tuarekin bibote eta bekinak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

### XAGU

ALTSASU

% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketarekin.

### GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontua (Baratza eta garaiko loretan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).



## Atletismoa



Javi Moreno, eskuinean, Donostian.

## Moreno 3.a Altzan

Donostiako Altza auzoak 28. Jolas-tokietako Krosa-Jose Maria Villar 8. Memoriala hartu zuen larunbatean. 4 km-ko proba zen eta 41 korrikalarik osatu zuten ibilbidea. Aitor Etxeberria igeldorra izan zen azkarrena (14:07), Victor Madejoni 4 segundo aterata. Jabi Moreno altsasuarra osatu zuen podiuma, 3.a sartu baitzen helmugara, 10 segundora.

## Triatloia

## Benjumea 10.a San Juan Triatloian

Iruñeko San Juan Kirol Elkartek 16. San Juan Triatloia hartu zuen igandean. Kategoria txikietan 148 triatleta aritu ziren, eta proba nagusian 102. Proba nagusian Iñigo Sevillano izan zen txapelduna (39:10). Sakana Triatloi Taldeko Felix Benjumea altsasuarra 10. postuan iritsi zen helmugara (42:17).

## PEÑAGARIKANO LEHEN KADETEA ZUMAIAN

Larunbatean Zumaiako Sprint Triatloia jokatu zen (750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrikan). Helmugara iritsi ziren 218 triatleten artean Aimar Agirresarobe izan zen azkarrena (56:55). Sakana Triatloi Taldeko Urko Peñagarikano gaztea 44. postuan iritsi zen helmugara (1:03:57), probako lehen kadetea. Juan Luis Maiza 78.a izan zen (1:06:34).

## Sega

## Bixente Mitxelena 6.a Europako Sega Txapelketan

Hego Tiroleko Toblach herrian Europako Sega Txapelketa jokatu da asteburuan. Euskal Herriko selekzioarekin batera, Hego Tirol, Alemania, Austria, Suitza eta Eslovenia neurtu dira, nazioarteko eran. Euskal Herriko selekzioak 15 segalari eraman ditu, 5 emakumezko eta 10 gizonezko. Tartean zegoen Altsasun bizi den Bixente Mitxelena oiartzuarra. Gizonezkoek 100 metro karratuko sail bana izan zuten lan egiteko eta emakumezkoek, berriz, 35 m karratuko. Euskal Herriko selekzioak nahiko itxura ona eman du. Emakumezkoetan Austria izan da jaun eta jabe, Margit Steinman buru zela. Gizonezkoetan suitzarrak izan dira nagusi Armin Betschart buru, baina euskaldunen emaitzak onak izan dira, Igor Esnaola 4.a eta Bixente Mitxelena 6.a izan baitira.

## Motoziklismoa

## Berriro Mundialera

MARIÑELARENAK DANI RIVAS ORDEZKATUKO DU ASTEBURUAN SAN MARINO SARI NAGUSIAN.

Alex Mariñelarena pilotuari prime-rako aukera sortu zaio: Munduko Motoziklismo Txapelketan aritzea. Asteburuan San Marino Sari Nagusia dago jokoan Misanoko zirkuitu mitikoan, eta bertan ariko da irurtzundarra. Silverstonen lesionatu zen Dani Rivas pilotuaren ordez ariko da, Rivasen Blusens Avintia taldearekin eta haien Kalex motorrarekin, Moto 2 mailan.

## Mundialean hirugarrenez

Alex Mariñelarenak Munduko Motoziklismoko bizpahiru lasterketetan parte hartu du, 2012an Motorland Aragon zirkuituan eta aurten Jerezen eta Alemanian, gonbidatu edo Wild Car bezala. Garilaren 14an Alemaniako Moto GP Sari Nagusian aritu zen. Sachsenring zirkuitu konplikatuan munduko onenekin aritzeko aukera izan zuen. Nahiz eta hainbat arazo izan, erorketak tarteko, zuku atera zion esperientziari. Asteburuan, Misanon izanendu esperientzia hori handitzeko aukera.



Alex kazetariz inguratuta. Proba telebistaz jarraitu ahal izango da. UTZITAKOA

## Aldaketak

Targobank Motorsport taldearekin duen ohiko Suter motorrean ibili beharrean, Kalex motorrean igokoda lehendabiziko aldiz irurtzundarra. Jakina, motorrari puntua hartzea izango da bere lehendabiziko lanetako bat. "Blusens Avintia esperientzia handiko taldea da

eta oso motor lehiakorra gidatuko dut. Motorrari egokitzea baino gorpulei egokitzea izango da erronka, eurek motorra puntuan dutelako, oso garatuta" adierazi du Mariñelarenak. Izan ere, mundialean Dunlop gurpilak erabiltzen dira eta Espainiako Abiadura Txapelketan, aldiz, Michelinak. Hortaz, erronka

## Irurtzundarra bosgarrena Albaceten

Alex Mariñelarenak Espainiako Abiadura Txapelketako 4. proba jokatu zuen asteburuan Albaceteko Zirkuituan. 33 pilotu lehia-tu ziren, 3,5 km-ko zirkuituari 20 itzuli emateko. Hasieratik Roman Ramos liderrak aurea hartu eta gainontzekoei alde polita aterazi zion. Mariñelarena ez zen bere onenean egon eta 5.a iritsi zen helmugara. Sailkapen orokorrean Roman Ramosek lidergoasendotu du (110 puntu) eta Mariñelarena 2.a da (77 puntu). Hurrengo proba Los Arcosen jokatu da, irailaren 22an.

handia du Mariñelarenak, duen balioa erakusteko aukera aparta.

Moto GP mailan, Marquez, Pedrosa, Lorenzo eta Rossi dira faboritoak, eta Moto 2ko buru Scott Reddin da, Espargaroren aurretik. Lehia estua espero da.

## Misanoko ordutegia

Igandean, 12:20ean hasiko da Moto 2ko lasterketa. Aurretik, larunbatean, entrenamendu nagusiak 10:55ean eta 15:05ean izanen ditu Mariñelarenak.

## Irristaketa



Gobernua irristalariei harrera egiten. Erdian dago Ioseba Fernandez iturmendiarrak. UTZITAKOA

## Irristalariei harrera


Nafarroako Gobernuko Gizarte Politikako kontseilari Iñigo Allik Espainiako Irristaketa Abiadura Txapelketan eta Espainiako Irristaketa Artistikoko Txapelketan parte hartu duten 18 irristalari nafarrei harrera egin zion astelehenean. Aipatu txirrindulari hauetako 5 berriki jokatu diren

Europako eta Munduko Irristaketa Abiadura Txapelketan aritu dira, eta urrezko 2 domina, zilarrrezko 5 eta brontzeko 4 ekarri dituzte. Tartean dago Ioseba Fernandez Fernandez irristalaria. Iturmendiarrak Europako Txapelketatik bi urrezko domina, zilarrrezko bat eta bi brontzeko eka-

rri zituen, eta Munduko txapelketetatik zilarrrezko domina zirkuituko 200 metroko erlojupekoan eta brontzeko pistako 300 metroko erlojupekoan.

Irristalariak zoriontzear gain, kontseilariak adierazi zuen "jarraitu beharreko eredu" direla, "lortzen ari zireten guztiarengatik".

## Ander Villalobos 2.a Antsoainen



Larunbatean IV. Gazte Berriak Irristaketa Trofeoa jokatu zen Antsoainen eta Sakana Irristaketa Klubeko Ander Villalobos bigarrena sailkatu zen. Bestetik, Juli Acebes entrenatzaileak azaldu digunez, Sakanako irristalari federatuek irailaren 3an hasi zituzten entrenamenduak, baina irristaketa eskolak lastailan hasiko dira lanean, Altsasuko Irristaketa Taldea eta Urdiaingo Aitziber lastailaren 1ean eta Olaztiko Sutegi lastailaren 2an.

## Gimnasia erritmikoa

## Erakustaldi polita Altsasun

Altsasuko Intxostia auzoko festen barruan larunbatean erakustaldi ederra eskaini zuten Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldeko gimnastek Zumalakarregi plazan. Bertara hurbildu zirenek koreografia, mugimendu eta akrobazia bikainez gozatzeko aukera izan zuten.



## Areto futbola

# Xota, inoiz baino irurtzundarragoa

SEI JOKALARI IRURTZUNDAR ARIKO DIRA XOTA NAFARROAN. GAUR MONTESINOS JUMILLA TALDEA HARTUKO DU XOTAK, 20:30EAN, ANAITASUNAN

Irurtzungo klubak asteartean egin zuen denboraldiaren aurkezpena, Aurtengoa maila gorenean dabilen 16. denboraldia izango da Xotarendako. Momentuz, eta Trimanekek babesletza utzi zuenetik, babesle nagusirik ez dute, eta Xota Nafarroa izenarekin arituko dira. "Egoera konplikatua da, baina uste dut egoerari aurre egingo diogula. Borrokatzen jarraituko dugu, Xotakoak horrela garelako" nabarmendu zuen Tatono Arregi presidentek, oraindik ere babesle nagusia bilatzeko lanetan dabilzala onartuz. Halaber, Xota laguntzen duten babesle txikiei biziki esker-tuzien emandako laguntza.

## Ohorezko mailari eustea

Horregatik Xotak gerrikoa estutu du: plantilan jokalaririk gutxiago



Xota 2013-2014ko plantilla. Sei jokalaririk irurtzundar daude aurten. UTZITAKOIA

eta jokalaririk merkeagoak ariko dira, eta harrobiaren aldeko apustua egin da, Alvaro atezainarekin eta Javier Saldiserekin. Araça, Ximbinha, Ivan, Jonathan eta Iraitzatera dira taldetik, eta Marc Tolrá, Barça Alusport utzitakoa

eta Joni dira jokalaririk berriak. Talde oso gaztea du Xotak, 14 futbolari osatutakoa. Horietatik 6 jokalaririk irurtzundarrak dira: Asier Llamas eta Alvaro Fuertes atezainak, Roberto Martil, Iñigo Amezketa eta Daniel eta Javier Saldise

jokalaririk. Gainontzekoak estatuko jokalaririk dira. Hortaz, agur brasildarrei.

Helburua ohorezko mailari eustea izango da. "Egoera ekonomiko berriari egokitu behar diogu eta aurten irautea da gure helburua. Beheko postuak ekiditea izango da gure lehenengo lana, eta gero ikusiko dugu noraino heltzen garen. Helburuak lortzeko guztia emango dugu" nabarmendu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

## Gaur hasiko da denboraldia

Aurreko urtean denboraldi bikaina egin zuen Irurtzungo taldeak: Errege Kopan eta Ohorezko Mailako Ligan play off-etarako sailkatu zen, final laurdenetara helduz. Denboraldia gaur hasiko da. Mailaz igo berri den Montesinos

## Xota Nafarroa 2013-2014

**Jokalaririk:** Asier Llamas (atezaina), Víctor Arevalo (hego-atzelaria), Marc Tolrá (atzelaria), Iñigo Amezketa (hegoa), Jesus Solano "Jesulito" (hegoa), J. Carlos Delgado "Carlitos" (hego-pibota), Roberto Martil (hego-atzelaria), Daniel Saldise "Dani" (hegoa), Rafael Usin (hegoa), Jonathan Delgado "Joni" (hegoa), Javier Eseverri (hego-atzelaria), Alejandro Perez "Alex" (atezaina), Javier Saldise (hegoa) eta Alvaro Fuertes (atezaina).

**Entrenatzaileak:** Imanol Arregi. **2. entrenatzaileak:** Migel Hernandez. **Medikua:** Jose Maria Lamo. **Delegatua:** Txuma Sangüesa. **Fisioterapeutak:** Luis Pelluz eta Diego Murrillo. **Materialaren arduradunak:** Antonio Vilches eta Mikel Diestro. **Xotako presidentea:** Tatono Arregi.

[www.xota.es](http://www.xota.es)

Xota klubari eta Xota fundazioari lotutako informazio guztia. Ohorezko mailako egutegia, partiden kronikak eta beste. Twitterra: @cdxota. Facebooka: Club Deportivo Xota.

F.S. Jumilla taldea hartuko du Xotak Anaitasuna Pabilioian, 20:30ean.

## Futbola

# Altsasu, ilusioz beteta

ASTEBURUAN HASIKO DA ERREGIONAL MAILA. ALTSASUK TALDE OSO GAZTEA DU JOSE ANTONIO CLAVERREN AGINDUETARA. HELBURUA: IGOERA FASERA SAILKATZEA. ALTSASU ETA LAGUN ARTEA B TALDEAK JOKATU BEHARREKO PARTIDA ATZERATU EGIN DA

## Erregional maila. 1. jardunaldia

Lagun Artea B -- Altsasu (atzeratuta, Altsasuko festak direlako)  
Errotxapea - Etxarri Aranatz (larunbatean, 17:00etan, Iruñean)

Asteburuan hasiko da erregional maila. Hiru talde sakandar ariko dira bertan: Altsasu, Etxarri Aranatz eta Ultzamaren laguntzarekin sortu den Lagun Artea B.

Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) da Altsasun futbola kudeatzen duen elkarte. Bere presidente Pablo Lopez Colinarekin bildu gara. Berak esan digunez, aurten 13 talde izanen ditu Altsasu futbol taldeak guztira, kategoriarik guztiak kontuan hartuta. Gutxi gora behera 225 jokalaririk inguru ariko dira, gehienak mutilak. "Azpiko kategorietan badira neskak, baina haurren mailatik gora ez. Izan genuen Altsasun aritzen zen neska bat, gero Osasunako haurren taldera joan zena" aipatu digu Lopez Colinak.

## Talde berri eta gaztea

Erregional mailako liga asteburuan hasiko da. Ultzama taldearen laguntzaz sortu den Lagun Artea B-ren kontra jokatzeko zen Altsasu, baina festak direla eta, partida atzeratu egin dute. Etxarri Aranatz Errotxapearen kontra jokatu du.

Aurten ilusioz gainezka daude Altsasun, talde polita sortu dutelako. Izan ere gazte kategoriariko jokalaririk asko igo dira erregional mailara. "Baja batzuk egin dira



Aurreko urteko Altsasu-Etxarri derbia. Lagun Artea Bren kontra jokatzeko zen Altsasu, baina partida atzeratu dute.

etajubenil askopasa dira. Kontuan hartu behar da jubenil hauek pasaden urtean Liga Nazionalera igotzear egon zirela, puntu eskas batengatik ez zuten lortu. Euren esperoan geunden. Oso prestatuak datoz eta talde ona sortu dugula iruditzen zait. Euren ilusioarekin eta beterranoen bultzadarekin... ea goiko postuetan egoitea lortzen dugun, Preferenteko igoera fasea jokatzeko" nabarmendu du Lopez Colinak.

Altsasukoa talde gaztea da, batez beste 21 urtekoa. 19 urteko 7 jokalaririk daude, 20 eta 21 urteko hiruna, 22 urteko 2 jokalaririk, 24 eta 25 urteko jokalaririk bana, 27 urteko 2 eta 31 urteko bakarrik, beterranoena. "Taldea gaztea da baina talde polita, futbola zer den ongi dakiena. Jokalaririk prestatuak eta egokiak direla uste dugu. Beterranoen laguntzare-

kin ea ongi dabilzan. Ligan ongi astea da gakoa, hala bada beraiek bertan sinistuko baitute ongi ibiltzeko kapazak izango direla. Liga gaizki hasiz gero oso gogorra da erremontatzea" gaineratu digu Lopez Colinak.

## Taldea itxi gabe

Aurreko urtean baino baikorrago daude Altsasun. "Aurreko urtean taldea sortzeko arazoekin egon ginen, ezin futbolari kopurua bildu eta osatu. Aurten, aldiz, kalitate handiko jokalaririk ditugu, baina jokalaririk gehiegi. Horregatik aukeraketa egin behar du entrenatzaileak eta horretan dabil. Gehienez ere 25 fitxa egin ahal ditugu eta momentuz 20 fitxa egin ditugu. Fitxa gehiago egiteko asmoa dugu baina entrenatzaileak erabaki behar du zein jokalari

larie egin fitxa hori. Horregatik, erabaki horiek hartu bitartean, nahiago dugu jokalaririk zerranda ez publikatzea" adierazi digu Pablo Lopez Colina presidentek.

Jose Antonio Claver entrenatzaile Altsasuararekin oso pozik dago SDA. Claverrek Francisco Jose Gomez "Frasquito" Altsasuar eza-gunaren laguntza du. Jokalaririk asko dabilza entrenatzen, giro onean, ilusioarekin eta gustura. Arerio indartsuenak Valle de Egües, Amaya eta San Jorge omen dira. "Baina liga hasten denean ikusiko dugu hori" gaineratu du Pablo Lopezek.

## SDA

Sociedad Deportiva Alsasua kudeatzen ditu Altsasuko Futbol Taldeko talde guztiak. Horretaz aparte, pilota, txirrindularitza eta bestelantzen ditu SDA-k. 374 bazkide ditu

## Entrenatzaileak

Jose Antonio Claver, Francisco Jose Gomez laguntzaile duela (erregionala), Peio Goikoetxea (gazteak), Alonso Davila eta Jon Ander Fernandez, Alfonso Castellanosen laguntzarekin (kadeteen talde bana), Migel Javier Mendoza (haurren 1. maila), Xabier Lopez (haurren 2. maila), Elena Sanchez, Javier Riezu, David Fernandez, Felix Dominguez eta Gorka Pascua (kimuen talde bana) eta Iñaki Cristobal (aurrebenjaminak eta benjaminak).

## Altsasuren 13 taldeak

Erregional mailakoa, gazteen 1. mailakoa, kadeteen 2. mailako 2 talde, haurren 1. mailako talde bat, haurren 2. mailako talde bat, kimuen mailako 5 talde (Sakanako Futbol Topaketan aritzen dira), benjaminen talde bat eta aurrebenjaminen beste bat.

elkartek. "Gehiago izan zitezkeen, baina ez gara kexatzen" dio Lopez Colinak. Ekonomia aldetik, "saneatuta" daudela dio, eta hori ez da gutxi. Futbolak gutxi gora behera 70.000 euroko aurrekontua eskatzen dio SDA-ri. Dantzaleku futbol zelaiarekin "oso pozik" daude, eta liga hasteko irrikaz.

## Lagun Arteak galdu

3. mailan, Valtieranok sorpresa eman zuen Lakuntzan eta 0-4 irabaziz Lagun Artea. Mutilbera da liderra (9 puntu) eta Lagun Artea 15.a (3 puntu). Igandean, 17:30ean, Murtxaneren kontra jokatu du Lagunek Erriberan.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

## Aitziber Zubelzu Mujika

Iñigo Aritza ikastolako ikasle ohia

Senti ezazu  
distira bat itzaletan,  
hitzak lehertzen  
direnean,

behin eta berriz  
ezintasunen gainetik  
aske irauten dugula,  
senti ezazu.



Iñigo Aritza ikastolako guraso, langile eta ikasleak

## Aitziber Zubelzu Mujika

Lehenago nahiz beranduago,  
elkar topo egingen dugu.  
Beti gure bihotzean.



Katiluko lagunak

## Oroigarriak



**Guaixe**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



## Maite, Xabi, Karlos eta David

20. urteurrena

Urak dakarrena  
urak daroa  
zuek emandakoa  
gurekin gelditzen da.

Irurtzungo koadrila



## Alberto

10. urteurrena

Urak dakarrena  
urak daroa  
zuek emandakoa  
gurekin gelditzen da.

Etxekoak

### JAIOTZAK

- **Thiago Lanz Coria**, abuztuaren 11n Iturmendin
- **Hegoi Holgado Fresneda**, irailaren 3an Altsasun
- **Maidier Pires Arangoa**, irailaren 4an Irurtzunen

### EZKONTZAK

- **Jose Javier Beregaña Arostegi eta Ainara Aiestaran Ijurko**, irailaren 7an Etxarrin
- **Antonio Rodriguez Estevez eta Judith Moral Diez de Ulzurrun**, irailaren 7an Irurtzunen

### HERIOTZAK

- **Carmen Olasagarre Asurabarrena**, irailaren 6an Lakuntzan
- **Jose Luis Huarte Gerezta**, irailaren 6an Arruazun
- **Jose Duarte Sotelo**, irailaren 8an Arbuzun

Informazio hau epaitegiaren eta udaletan jasotzen da

guaixe.iragarkilaburrak.com

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en doan

Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefona: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

### Erosi/ Saldu

#### EROSI

**Pisua aldatu.** Arbuzun 3 gelako pisua (ganbara eta bajearekin) aldatzen da 4 gelako pisu-etxeagatik. Baldintzak negoziatzeko prest. Kontakturako telefona: 653- 72 64 76.

**Maxi Cosi Cuco.** Erosiko genuke. Tel. 679 41 47 31.

### Oparitakoak

#### TXAKURKUMEAK

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Border Collie itxurakoak. Tel. 696 37 21 48.

### Ikastaroak

**AES-en ikastaroak.** Biltegi eta stocken kudeaketa: 40 ordu, irailaren 20tik abenduaren 13ra; Ingelera B1 (erdimaila): 60 ordu, irailaren 23tik azaroaren 14ra; Ekonomia eta Finantzen kudeaketarako hobekuntza alderdi praktikoak, 30 ordu, urriaren 3tik urriaren 11ra; Planoen interpretazioa, 45 ordu, urriaren 21etik azaroaren 21era; Enpresa blog eta orrialdeen sorrera, 30 ordu, urriaren 28tik azaroaren 25era; Ingelera C1 (aurreratua), 60 ordu, azaroaren 18tik urtarrilaren 30era; 2D aurreratua eta 3D planoen diseinua, 40 ordu, azaroaren 25etik urtarrilaren 20era.

**Cederna Garalurren ikastaroak.** Lehen sektorean eta zerbitzuenean lanean ari diren profesionali eta langabei zuzenduta dago. Alfabetatze

digitala enplegua aktiboki bilatzeko, Irailak 24,25,26,27 eta 30, 9:00-13:30, Altsasun. eta Olaztin urriak 7,8,9,10 eta 11, 9:00-13:30. Abeltzaintzako ekoizpenaren errentagarritasuna hobetzea larreak ongi erabiliz, lastailak 1,2,8,9,15,16,22 eta 23, 10:00-14:00, Arbuzun. Sormena zure enpresan; berrikuntzak bezera abiapuntu hartuz, lastailak 18,23 eta 30 eta azaroak 6,13 eta 20 Arbuzun, 9:00-14:00. Informazio gehiago, 948 56 70 10 telefonoan eta [info@cederna.es](mailto:info@cederna.es), [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es) helbide elektronikotan.

### Altsasuko udal ikastaroen eskaintza.

Joste lanak, lentzeria, zeramika artistikoa, etxerako konponketak, eho-ziriak. Tailerrak: hizketaldi literarioak, helduekiko plazerra, autoezagutza eta garapen pertsonala, ahalduz, lortuak antzerki tailerra. Informazio gehiago [irtia@altsasu.net](mailto:irtia@altsasu.net), 948 56 42 72.

**UGT sindikatuaren ikastaroak.** Informatikari hasiera eta testuen tratamendua; Coaching; Psikomotrizitate geriatrikoa; Soldadura TIG; Electrezitate II; Aurreko orgak erabiltzeko operadorea; Zeharkako orga jasotzaileak erabiltzeko gidatzailea. Informazio gehiago 948 46 71 20.

**IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

### Lehiaketa

**VI Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarieta.** Lanak aurkezteko egpea irailaren 30ean despidituko da. Informazio gehiago ondoko aitariari: [www.sociolinguistika.org/hausnartu](http://www.sociolinguistika.org/hausnartu)

### Oharrak

**Odol emaileak.** Iraila: Olaztin, 16an eta 23an, arratsalde; Ziordian, 23an, arratsalde.

**Euskara irakasleen topaketa.** Sakanako Gau Eskoletan eta AEKn aritutako irakasleak irailaren 21ean, larunbatarekin, bazkaltzera bilduko dira. Izena emateko eta informaziorako hots egin 646-04 00 54 telefonora.

**Eskola librea.** Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. Nahi baduzu, deitu 661-59 04 20 telefonora.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**Liburuak truke.** Informazio gehiago: [larrezabaldek@inigoaritzza.com](mailto:larrezabaldek@inigoaritzza.com)

**Nafarroa Oinez.** Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerrik asko! <https://docs.google.com/spreadsheets/embeddedform?formkey=dEZwZOZidIV6RUVtDHFJMKlvR1c4TGc6MQ>

**3MBk.** 3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

### Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

### Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosfosofinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosfosofinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosfosofinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosfosofinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

### Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri: Produktu ekologikoen elkarte eta denda.** Sakanan produktu ekologikoak zuzenean

eskuratzeke gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-gardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

### Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.

Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

### Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua

**Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionali, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. Aurretik txanda eskatu: 648 07 07 10.

# kultura >>

## GIDOIA IRAKURGAI:

Joseba Salegi zinema zuzendari altsasuarrak herriko liburutegian utzi du idatzi duen gidoiaren azken bertsioa. «La Tecla Rota» izenburua duen testua nahi duenak irakurtzeko aukera du.

## Altsasuk txistulariak omenduko ditu



Bihar, larunbata, 12:00etan, Foru plazan

**B**aina omendua izan aurretik garai batean bezala goizez txistua joko dute. Eguerdiarekin batera, atzera ere, kioskorra igoko dira. Ezkila-joleak urteko azken ezkila errepika haiei eskainiko diete.

Altsasuko herriak, udalaren bidez, bere ttuntuneroak omenduko ditu gero. Atabala eta txistua jo duten 43 gizon-emakumeei udalak zapi bana jarriko die. Gainera, Enrike Zelaia armonizatu-

tako Altsasuko Zortzikoaren partitura txukun bat oparituko zaie. Egiteko horretan Zelaia Cruz Mari Martinez (txistu melodia), Juan Pablo Urizar (danbolin erritmoa), Josetxo Lumbreras (atabalaren erritmoa), Olatz Garde (musika kopista) eta Maite Goikoetxea (bertsoen ortografia) izan du.

Bukatzeko 37 gizon eta 6 emakumeek "historiako Zortziko ozenena" joko dute. Herriarendako musikarien omenaldi horretan jende guztiak dantzatzea egokia litza-tekeela uste dute antolatzaileek.

### Omendua

#### Atabalariak (10)

Jose Urizar (1935), Luis Delfrade (1936), Patxi Goikoetxea Askorbe (1947), Angel Aldasoro (1951), Juan Manuel Herrero (1953), Tomas Martinez (1958), Pedro Jimenez (1959), Josetxo Lumbreras (1965), Javi Herrero (1981) eta Asier Urizar (1987)

#### Txistulariak (33)

Candido Arnanz (1931), Carlos Luis Casteig (1934), Jokin Kampion (1936), Jokin Gares (1939), Cristobal Lanz (1943), Mikel San Roman (1943), Rafael Goñi (1945), Estaban Martinez (1947), Sebastian Larrion (1950), Mertxe Iradi (1951), Antxon Zubiria (1952), Cristobal Bergoetxea (1952), Juan Jose Zelaia (1953), Andres Bengoetxea (1953), Isabel Rubio (1953), Margari Iglesias (1953), Satur Leoz (1955), Cruz M<sup>a</sup> Martinez (1955), Mikel Zelaia (1955), Juan Cruz Bengoetxea (1956), Migel Gonzalez (1956), Juan Pablo Urizar (1958), Santiago Albiztur (1959), Patxi Goikoetxea San Roman (1960), Karlos Sanchez (1963), Jesus Irisarri (1969), Silvia Nunez (1975), Erkuden Zeberio (1978), Cristina Larrea (1985), Josu Mendizabal (1986), Oier Albiztur (1991), Goizargi Bengoetxea (1994) eta Imanol Lobo (1998).

#### Ez dauden ttuntuneroek ere aipamen berezia jasoko dute (16)

Eugenio Diaz, Ramon, Domicio eta Fernando Delfrade anaiak, Pedro Rubio, Isidro Zornoza, Alfonso Casteig, Jose Andres Sanchez, Dionisio Bengoetxea, Jose Ramirez, Maite Lanz, Jaime Larrion, Raimundo Galarza, Juan Mari Guajardo, Janari Latienda eta Esther Irisarri.

### Esker onez

Euskal Herriarekin gehien eta hobekien identifikatzen den musika tresna da txistua. Altsasun bere protagonismoa nagusi izan da tradiziozko dantza folklorikotetan, eta kasurik gehienetan ez da beste musika instrumenturik interpretatu. Dantza altsasuarren artean nabarmenenak Zortzikoak, adibidez, txistua, danbolin eta atabala ez diren beste instrumentu batzuekin ez da jo ofizialki.

Benetako altsasuar txistulari-multzo batek denboran zehar bere jarduna garatu du, bere parte hartzearekin urteko egutegi-ko festa garrantzitsuenak protagonizatuz. Horregatik, aurtengo festetan, Altsasuko Udalak, herri guztiaren izenean 50 txistulari altsasuar baino gehiagori omenaldi beroa eta merezitakoa eskainiko die. Omenaldi xumea, baina maitasunez eta esker onez beteta, musikaren eta dantza tradizionalaren bidez gure nortasun zeinuak bere horretan mantentzeko egin dutenagatik.

**Enrike Fernandez de Garaialde Lazkano Zelaia**

## bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

### Gezurra ari du

Gezurra ari du berriro ere. Irakekin behin eta berriro erabilitako gezurra, gerora Sudan edo Libia bonbardatzeko erabilitako gezur bera, edo Afganistan okupatzeko erabilitakoa. Berriro ere gezurra ari du eta, badirudi, jende asko prest dagoela gezur berdina irensteko.

Siriada orain inperialisten jopuntua. Eta eskuinak zein ezkertiar liberalek arrazoibide berdina darabilte: Al-Assad erditik kendu behar da, nahitaez. Inperialismoa, klasikoa edo progresioaz jantzita. Batzuek diote Siria eraso gero kontsekuentzien ondorioak ezinditugula aurrekusi. Egia da. Baina hori ez da benetako arrazoia Siria ez bonbardatzeko. Hori ondo bizi garenon estatusa galtzearen beldurrez eginiko argudiaketa da.

"Ezerasotu Siria, agiangure busitzen gabela". Esandakoa, argudiaketa hori darabilte bost Siriako herritarrek, bertako ume zein helduak. Bost bertakoen odola, ziprztintzen ez badira. Azkenik badaude betiko arima-ederrak, "bakea" hitza hutsalki erabiltzen dutenak. "Jar daitezela Putin eta Obama ados". Ados zertan? Ba Al-Assad kentzen, noski. Eta zertarako? Ba oposizio konorbait jartzeko edo. Badakizu, diktadura mandodistantziarekin urrutiko agintarekin ezartzeko gaitasuna nahi dute bakezale batzuek. Inperialismoaren aurka kontra gaudenon ardura dago zurberriro ere herritarren gainean ez erortzea. Siriaren aurkako kontrako interbentzioa arbuizatea eta erasotzaileak seinalatzea. Bestelako eztabaidek inperioari aurrepegia garbitzeko baino ez dute balio. Badakizue: behin engainatzen banauzu errua zurea da; birritan engainatzen banauzu errua nirea da.

## Altxa zu! Haize Berriak bandaren festarako oihua

**Juan Goikoetxea Zelaia, Juantxo Hermoso, musikari altsasuarrari eskainitako pieza mustuko du bandak**

Larunbatean, Altsasuko festetako herri bazkariaren ondoren

**F**esten aitzakiarekin Haize Berriak bandak makina bat altsasuar haiek jotako doinuak kantatzen jarri ditu. Oraingoan "zailagoa oraindik" proposatzen dute: "Altsasuko herriak berak egin dezala ikuskizuna. Aulkitik altxatu dadila eta bere dantzeekin Sakanako banda lagundu dezala". Horretarako, aurreko edizioetan kantariak bazituen, oraingoan Haize Berriak bandak dantza maisu altsasuarrak izanen ditu aldamenenean irakasle bezala aritzeko.

### Musika omenaldia

Haize Berriak bandak komposatzaileei lanak enkargatzeko ohiturarekin segitzen du. Biharkoan Altsasun bizi den Karlos Sanchez Ekiza komposatzaile iruindarrak sortu duen obra mustuko du Sakanako bandak: Juantxo Hermoso. Ezizen horixe zuen Juan Goikoetxea Zelaia altsasuarrak eta hari

eskainitakoa da obra. "Eskaini digun alaitasunagatik eta herri-musikan utzi digun arrasto aberatsagatik" sortu da pieza berri hori, "bertan biltzen baita Juantxo Hermosok jo eta hainbeste maite izan zuen herri-musika".

Goikoetxeak saxofoi altua jotzen zuen eta bandatik adierazi dutenez, "altsasuar guztiendako, musikari

bikaina, gizon aparta, xumea, XX. mendeko juglarea, bere behatzetan kalitatea, alaitasuna, irudimena eta doinua biltzen zituena". Altsasuko festetan, erromerietan, ferietan eta herrian sarritan jai-giroari lekua egiten zitzaion bakoitzean jotzen zuen Goikoetxeak. Gautxori orkestra, Altsasuko eta inguruetako gozagarri izan zen.

### Errepertorioa

Obra	Egilea	Interpretea
Juancho Hermoso	Karlos Sánchez Ekiza	
Granada	Agustin Lara	Marcos Galarza
Paquito Chicolatero	Gustavo Pascual Falcó	Gorka Azpilicueta
Lyric Waltz (de la Jazz Suite nº 2)	Dimitri Shostakovich	Falu
Merengue Picante	Jerome Thomas	Sergio
Polka Pik	Herrikoia	
Clarín de Fiestas	Maestro Turrillas	Jubilatu elkarteko abesbatza
See you later Alligator	Bill Haley y Los Cometas	Sevi
Jalisco nunca pierde	Lorenzo Barcelata	Herrero Brothers
Deba	Pablo Sorozabal	
Zortzikoak, fandango eta arin arin	Herrikoia	

**Amaya**  
Okindegia-gozotegia

**ARAI** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



**ALTSASU**



**OLAZTI**

948 468 755



**ETXARRI**

948 461 660

# Berastegiren haurrendako antzerki testua saritua



**P**luton: hor konpon Marian-ton izenburuko testuarekin irabazi du Zoila Berastegi Mariñelarenak Nafarroako Antzerki Eskolak, Iruñeko Udalaren laguntzaz, antolatutako XXII. lehiaketa. Arbizuarrak sortutako testua Nafarroako Antzerki Eskolak antolatutako eskolakanpainaren barruan antzeztuko da, heldu den urteko irailean taularatu da Iruñean.

**Belexe Irratian (FM 107,3)** aitortu duenez, “jartzen naiz eta idazten dut, baina ez naiz dramaturgoa. Antzerkia idaztea ez da lan erraza”.

Bere lana ontzeko “imajinario eta esperimintazio pixka bat” erabili zituela esan du Berastegik. Antzezia eta antzerkia idaztea ez direla gauza bera nabarmendu du arbizuarrak. Aurrenekoa nahiago du berak. Eta gaineratu du, askoz ere zailago dela umeendako idaztea helduendako baino. “Mundua ikusteko eta ulertzeko besteloga batera aldatu behar zara”.

Joan zen urtean ere aurkeztu zen lehiaketara, baina aurtengo zortetik gabe. “Antzerkia nahiko gertu bizi dut” esan du saritua **Belexe Irratian (FM 107,3)**. Nafarroako Antzerki Eskolan ikasketak despiditu ondoren beta gehiago zuenez eta idaztea gustatzen zaionez, lehiaketan parte hartzera animatu zen Berastegi. Arbizuarrak sakandarrak hurrengo urteetan lehiaketan parte hartzera animatu ditu: “euskarazko sorkuntza bulkatzeko eta norberak ariketa egiteko aukera ona da”.

**Obraz** Ume txikiendako, 8 urtetik beherakoendako pentsatutako antzezlana sortu du Berastegik. “Bi munduk elkar topo egiten dute: lurta-

rrak eta plutondarrak”. Berastegik azaldu duenez, kultur txoke bat eta ingurumena dira antzezlano gaiak, “modu erraz eta ulergarrian” tratatzen direnak.

**Belexe Irratian (FM 107,3)** zehaztu duenez, “alde batetik, nola bizi dugun desberdina den hori. Desberdina den horrekin topo egiten dugunean zein erreakzio ditugun”. Eta bestetik, ingurumenaren gaia ere azaltzen dira: “lurta-rrak Plutonera joan beharra dute lurtean urik gabe gelditu direlako. Han plutondarrek beste arazo bat dute, ur gehiegi dutela”.

## Mauduitek Nafarroako Filmotekan aurkeztuko du Martina



**Heldu den ostegunean, hilak 19, 20:00etan, film laburraren proiektzioa egingen da. Sarrera euro bat**

Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutuak Panorama zikloa antolatu du irailerako. Ziklo horren barruan erakundeak lagundu dituen lanak proiektatuko dira Nafarroako Filmotekan. Horien artean dago Urko Mauduit irurtzundarrak ondu duen animaziozko film laburra: *Martina*. “Gidoiak hala eskatuta” gaztelaniazko bertsioa proiektatuko da. Horren aurretik zuzendariak haren aurkezpena egingen du.

### Martina

Martina txikiak amets handiak ditu, ametsi leihoa ireki eta haiekin jolastea atsegin du... Hori da Mauduiten zuzendaritzapean Irude Koop lantaldeak egin duen 5 minutu inguruko 3D animaziozko film laburraren laburpena. 4-8 urte bitarteko haurrei zuzendua dagoen arren, publiko guztiarendako aproposa den film laburra da.

### Bloga

Martinak Interneteko atariaren helbidea du: <http://www.renderizarte.net/martina/eu/>



### Antzele taldea

Bila (ijitoa), Mikel Jimenez (On Kixote), Alfonso Muro (2. mutila eta 1. arabiartxoa), David Erbiti (Santxo), Jaione Astiz (aurkezlea eta moja), Kontxi Astiz (Luisa serora), Samuel Arraras (makarra eta erizaina), Lupi Irurtzun (andrea, Dulcinea, ijitoa), Miren Uharte (Pepa), Ima Jaka (ijitotxoa), Migel Ferraz (gaizkilea), Jokin Uharte (1. mutila eta 2. arabiartxoa), Jose Antonio Huarte (2. fraidea eta zainzailea), Andoni Jaka (2. zainzailea eta erizaina), Migel Angel Irurtzun (1. fraidea eta erizaina).

## On Kixote Ihabardik pasa zen

Ihabarko antzerki tailerrak, beste behin, arrakasta handia lortu zuen festen aurreko emanaldia. Seigarren urtez jarraian festen iragarle bihurtu den antzezlana

eskaini zuten, elkartearen parean. Jon Barbarinen zuzendaritzapean (Anjel Saguesen lanaren moldaketa egin du) 15 ihabardarrek jokatuz zituzten *Bienvenido Don Quijote*

te antzezlano paperak. Publikoak harrera ona egin zion eta horrek antzeleei hurrengo urtean segitzeko indarra eman diela esan digu Barbarinek.

## Kataluniatik doinu gogorak

Gaur, ostirala, 24:00etan, Altsasuko plazan

Estatuko eta Europako makina bat oholza zapatu ondoren, gauerdian KOP taldearen gitarra zorrotzak eta bateria sendoak Altsasuko plazan entzuten dira. Metal doinu sendoak gizarte eta politika kritikan, amorrutan eta adrenalina puruan zentratutako lirikaz lagunduta. Euskara, katalana eta gaztelania erabiltzen dituzte euren kantetan. Jaialdia Bad Sound System-en emanaldiarekin despidutako da.

## Berri Txarrak Etxarrin

Igandean, 20:00etan, gaztetxean

Legeberrin Legoitza duen Berri Txarrak taldeak etzi Etxarrin gaztetxea bisitatuko du. Hirukoak Haria diskoan eta aurrekoetan bildutako doinuak aletuko dituzte. Gorka Urbizu (ahotsa eta gitarra), Galder Izagirre (bateria) eta David Gonzalez (baxua) Etxarrin gaztetxean entzuteko aukera etzi. Ez dago sarrerarik.



**Udako G**

## argazki lehiaketa

**Irailaren 17a**  
baino lehen bidali

**FLORES**  
arkitektura

948 563 317  
arkiflores@gmail.com

lortia plaza 1-1  
ALTSASU

www.arquitecturajavierflores.com

**>> Saria:** **KATE informatikak**  
eskainitako **webcam-a,**  
**mikrofona eta aurikularrak**

**ADI, oinarri berriak:**

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan behar dira.** Argazkiari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri behar dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak berretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak Irailaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net) webgunean jarriko dira ikusgai.

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 1%	euria: 60%	euria: 5%	euria: 1%	euria: 3%	euria: 4%	euria: 2%
Min: 10 Max: 21	Min: 10 Max: 24	Min: 12 Max: 17	Min: 9 Max: 20	Min: 11 Max: 16	Min: 9 Max: 18	Min: 7 Max: 17

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	25	12	9,9
Etxarri A.	30	4,4	9,3
Altsasu	29	5,5	8,2
Aralar	21,1	5,3	15,5
Urbasa	25	2	13,7z

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
12	19	27	5

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Altsasu, topaleku eta dantzaleku!

altsasuko festak

Festas de altsasu

2013

irailak 11-17 septiembre

Guaixe KOMUNIKAZIOA

diseño & impresión

# >> 11

## galdera

Juan Cruz Bengoetxea,

Javi Unamuno,

Pablo Lopez Colina,

Jose Angel de Miguel

Altsasuko Gazteak peñako sortzaileak

Testua: Amaia Amilibia Salgado

Altsasuko Gazteak peñakoak 1973an. Elkarrizketa osoa: [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

zuen, eta horretaz aparte, Muthiko Txikiak eta Lagun Onak peñekin batera berbera arrakastatsua antolatzen genituen, urte batez La Orquesta Mondragon ekarri genuen, beste batean Lone Star talde ezaguna. Mis Alsasua lehiaketa ere birritan antolatu genuen, 1974an eta 1975ean, eta diru pila atera genuen horrekin. 1973. urtean peña bakoitzari 15.000 pezeta eman zigun udalak. 1974 urtean, berriz, diru gehiago, askoz gehiago. Harreman ona zegoen orduko udalarekin.

Aldaketa handiko urteak izan ziren. Jendeak asko parte hartzen zuen dianetan, hamaiketakoak, bermuth garaia, kafeak... Diane-tara joatea derrigorrezkoa zen. Diruzain bat egoten zen lista pasatzen eta huts egiten zuenak isuna ordaindu behar izaten zuen. Giro handia zegoen .... Oraingo gazteek baino lo gutxiago egiten genuen, 4-5 ordu baino ez... Pipe-rotan lo egiten genuen. Bizpahiru egunetik behin joaten ginen etxera arropa aldatzera.

**5. Zuen garaian piperotetan giro handia egoten zen, ezta?**

Bai, koadrila bakoitzak bere piperoa zuen. Zurrakapotea prestatzen zen eta Altsasuko peñakoak piperoz piperoz ibiltzen ginen piperobakoi-tzean egindako zurrakapotea probatzen. Guztietan zurrakapoterako eltxetxobategoten zen. Leku irekiak ziren, koadrilen arteko joan-etorri handia egoten zen.

**6. Altsasuko Gazteak peña irten zen lehenengo egunean Dantzalekuko futbol zelaia mustu zen: Osasunak Errealaren kontra jokatu zuen.**

Bai, egia da, animatzen egon ginen. Futbol zelaiari buelta eman genion txarangarekin.

**7. Zezenketak ere egiten ziren**

**8. Ereserki elegantea duzue, nork egin zuen?**

Enrike Zelaiak musika, eta Jose Mari Satrustegik letra. Gure arteko giroa erdalduna zen, baina letra, euskara hutsez egonda ere, guzti-guztiok ikasi genuen goitik behera. Gogoz kantatu eta dantzatzen genuen, sentimendu handiz.

**9. Musikariak topatzea ez omen zen lan erraza izan.**

Bezperan musikari bila Errioxara joan ginen. Etxajua bota eta gero iritsi ziren musikariak, 12:30ean: Casolareinakoekin batera, Gasteiztik akordeoilaria eta Burgosetik hiru musikari militar. Ondoren jakin genuen Tolosa inguruan musikari onak zeudela eta Ferietarako batzuk etorri ziren. 1974ko festetan sortu berria zen Incansables txarangatik 5 musikari etorri ziren. Perkusioa peñak jartzen zuen.

**10. Emakumearen parte hartzea noizkoa da?**

Emakumeak hasieratik parte hartzen du dibertsioan, baina ez du boteririk urte asko pasa arte. Ana Arregi izan zen lehenengoa, 1979-80 urtean. Bakar-bakarrrik egon zen hasieran. Belaunaldi aldaketa behar izan da berdintasuna lortzeko.

**11. 40. urteurrena nola ospatuko duzue?**

Bazkarira joango gara, gure ereserki kantatu eta dantzatuko dugu, eta seme-alabak ditugunok haiekin batera ospatuko dugu urteurrena. Aupa Altsasuko!!

# 2014ko egutegiaren eskaintza mundiala irailean

mahai egutegiak

100	200 €
200	250 €
500	390 €

kolorez, 300 g papera, A4, pirezide formen tolestus (210x100 mm)

boltsiko egutegiak

100	57 €
200	63 €
500	97 €

kolorez, 300 g papera, 84 x 55 mm plastifikatzea: +30 €

bi orrikoak

100	70 €
200	85 €
500	130 €

kolorez, 300 g papera, 84 x 110 mm, erdira tolestus plastifikatzea: +30 €

horma egutegiak

100	156 €
300	328 €
600	586 €

Postora personalizatua, kolorez, 330 x 370 mm. Feldoieklebidura, bi kolorez.

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
argi@guaixe.net

omendako prezioetan BEZ ez dago berriz.

**1. Nolako izan zen Altsasuko Gazteak peñaren sorrera?**

1972an herrian ez zegoen peñarik, Lagun Onak-ekoak festa egun batez baino ez ziren atera. Urte horretan Beti Jai koadrila atera zen, "Salón tiro follón" piperoko gazte batzuekin, txistulariekin eta pankarta batekin. Irtenaldi hori eta gero, 1973ko festetarako prestatzen hasi ginen. Herriko 8-10 koadrilak elkarlanean hasi ginen, junta bat eratu genuen. Izara batekin kalez kale ibili ginen sortzeko zegoen peñarendako dirua biltzen txistularien atzetik.

**2. Peñaren izena nondik sortu zen?**

Sustatzaileak Altsasuko gazteak ginen; festa egiteko gogoz genbiltzanak. 16-20 urte bitarteko koadrila pila bat (1955-57 urtean jaiotakoak gehienak), 80-90 gazte inguru. Gureak ezin zuen beste izenik izan: guztiok ginen Altsasukoak eta gazteak.

**3. Eta ator gorria?**

Lagun Onak-ekoak ator beltza zuten; gurea, halaber, berri-tzaileago izan behar zuen. Urte pare batez Gazte Anaiakoak ator gorriarekin atera ziren... Praka txuria eta ator txuria jantzen gu izan ginen lehenak. Ordu-ra arte ez zegoen horrelako ohi-turirik. Festetan oso maiz mozo-rrotzen ginen, gure gazte garaian ihoteak ez ziren ospatzen.

**4. Finantzazioa lortzeko lan handia egin zenuten...**

Peñakide bakoitzak dirua jartzen

**11. 40. urteurrena nola ospatuko duzue?**

Bazkarira joango gara, gure ereserki kantatu eta dantzatuko dugu, eta seme-alabak ditugunok haiekin batera ospatuko dugu urteurrena. Aupa Altsasuko!!